

Euskararekiko jarrerak aztertzen

Gradu amaierako lana



Ikaslea: Maialen Zamakola Zamakola

Irakaslea: Saioa Larraza Arnanz

HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

VITORIA-GASTEIZ

2018/2019

AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	3
2. Justifikazioa.....	4
3. Helburuak.....	5
4. Marko teorikoa.....	5
4.1 Hizkuntza-erabileran eragiten duten faktoreak.....	5
4.1.1 Etxea eta eskola.....	6
4.1.2 Lagunartea eta eskola.....	7
4.1.3 Etorkizunean zer?.....	8
4.1.4 Gazteen erabilera: helduen pertzepzioak.....	9
4.2 Euskararen erabilera.....	10
4.2.1 Euskararen erabilera ulertzeko klabeak.....	10
4.2.2 Euskara hitz egitearen klabeak: “egitearen” garrantzia.....	12
4.2.3 Euskararen balioa hiztunengan.....	12
4.2.3.1 Balio instrumentala.....	13
4.2.3.2 Motibazio integratzailea.....	13
4.3 Hizkuntza eta ideologia.....	14
4.4 Aurreiritziak.....	15
4.5 Aniztasun dialektala: euskaldun zahar vs euskaldun berri eztabaida.....	16
4.5.1 Batua eta euskalkien balio eta funtzioak.....	16
4.5.2 Kategoriak: identitate linguistikoa eta legitimazioa.....	17
5. Datu bilketa.....	19
5.1 Datu enpirikoen aurkezpena.....	19
5.2 Datuen azterketa.....	47
6. Ondorioak.....	53
7. Proposamen didaktikoa.....	55
8. Bibliografia.....	58
9. Eranskinak.....	59

1. SARRERA

Euskara ama-hizkuntza gisa izan dut jaio nintzenetik, zorionez. Zorionez diot, egun, altxor preziatua delako, eta zein zorzea dudana, hizkuntza batean zein bestean aritzeko, baina batez ere, euskaraz bizitzeko.

Zoritxarrez, nire bizitzan lanean zehar aipatuko diren kasu ezberdinak bizi izan ditut; izan ditut lagunak “euskara soilik eskolan erabiliko dut, bertatik kanpo ez du ezertarako balio” moduko esaldiak errepikatzen zituztenak, edota ama-hizkuntza euskara izanik ere gaztelania hutsez aritzen zirenak (eta direnak); nire lagunekin euskaraz hasita ere, gaztelaniaz amaitzea (nahi eta ezina)... Hori Eibar bezalako hiri txiki batean. Jo dezagun Gasteizen. Karreran lau urtez, idazkaritzan oraindik ere gaztelaniaz aritu behar. Bai eta hiriak eskaintzen dituen zerbitzu publikoetan izan ohi diren pertsonekin ere, Mendizorrotzan kasu. Eta gainera, barnetik barkamena eskatzea ateratzen zaizu. Tarteka, amore eman eta lehenengo hitza gaztelaniaz hasten duzu, pentsatuz, honek ez du euskaraz aritzeko itxura handirik. Aurreiritziak. Amore ematea. Baina altxatzen zara egun batez, eta zure buruari agintzen diozu: gaur euskaraz hasiko naiz, elkarrizketa guztiak euskaraz hasiko ditut. Leku berri batera joan eta euskaraz hasten zara, eta euskaraz erantzuten dizu; euskara bikain batean, edota euskaraz, baina poliki. Eta zuk lasai, baietz; hark begiradarekin eskertu eta guzti egiten dizu, gutxienez, ikasitakoak zerbaitetarako balio izan diolako. Zelako emozioa!

Eskolako egungo errealitateaz, zer esanik ez. Euskara eskolarekin bat doa, eta “guaia” dena, eskolaz kanpo dago, gaztelaniaz: jokoak, jolasak, telesailak, hizkera informala...Eta ondorioz, “euskara kaka bat da”. Badira kontrakoa uste dutenak ere, euskaraz bizi nahi eta bizi direnak, baina zenbait lagunekin gaztelaniaz aritzen direnak gaztelania “guaia” delako. Zelako pena, ez dakizue zein oker zabiltzaten, ez dakizue gaztelania erabiltzeko zenbat aukera izango duzuen!

Hala, bizi izan edo kontatutako guzti honengatik egin nahi izan dut lan hau, eta bide batez, egoerari nolabait buelta emateko asmoz proposamen bat egin. Euskara ez baita eskola; euskara mundu bat da, ondo zaindu beharreko altxorra, txiki eta hauskorra bailitzan. Hau baita gure nortasunaren ikur nagusietako bat, gure identitatea, kultura...ez al gara, bada, euskaldunak?

2. JUSTIFIKAZIOA

Hizkuntza da ahoz aho transmititzen eta komunikatzeko erabiltzen dugun tresna; eta, egun, gizarteak hizkuntza berriak ikastera garamatza, zenbat eta gehiago jakitea hobe omen dela esan ohi baita, horrek onurak dakartzala, baita lana aurkitzeko erraztasuna ere (Navarro, 2017).

Echarriren (2011) hitzetan, euskara da euskaldunon hizkuntza, beste edozein hizkuntzarekin parekotasunik ez duena, Europako familia linguistikoekin erlaziorik gabea (ez indoeuropearrekin ezta uralikoekin ere). Horrek gorabehera handiak izan ditu historian zehar, diktadurak eta beste hainbatek hizkuntza akabatu nahi izan baitzuten, baina egun, zutitu egin da. Euskaldunen identitatearen alderdi garrantzitsuenetako bat.

Euskal Autonomia Erkidegoan bi hizkuntza ofizial (euskara eta gaztelania) edukitzearen ondorioz, euskaldunok gutxienez elebidunak garela esan ohi da, baina hori gehiegi orokortzea litzateke. Izan ere, jakin badakigu euskaldunon errealitatea bestelakoa dela, eta ofizialtasunak ez duela gaitasuna bermatzen. Zergatik ote? Zerk eramaten gaitu hizkuntza batzuk ikastera eta beste batzuk deuseztatzen?

Eskola eremuko errealitate linguistikoak egoera berdina islatzen du. Gaztelania (edota beste hizkuntza batzuk) nagusitzen den heinean, euskara alde batera uzten da maiz, arrazoi ezberdinak direla medio. Egoera horrek hainbat galdera planteatzeko aukera ematen du. Benetan erlazionatzen al da euskararen erabilera soilik eskola eremuarekin? Zerk eragiten du euskara bezalako hizkuntza batekiko jokabide edo erabileran? Zein da euskarazko hizkuntza-ereduetan seme-alabak eskolaratzeko arrazoia? Gaztelaniazko ohitura dagoen egoeretan, nola eragin hizkuntza aldaketa? Nola eragin euskararen erabileran?

Lan honetan zehar egindako inkesten bidezko neurketa esanguratsua izango da aztertutako hiru eremuetan: ikasle, guraso eta tutorearen aldetik, hain zuzen ere. Alde batetik, haurren ikuspuntu zein egunerokotasuneko ohiturak aztertzeak aukera emango digu zein errealitate nagusitzen den ikusteko. Bestetik, haur horiengan eragina duten beste bi alderdik, hau da, guraso zein tutoreak, haiek ere zer nolako jarrera duten aztertzeak errealitate horren islaren zergatia “biluzten” lagun diezaguke, eta horretan positiboki eragiteko nolabaiteko pista edo laguntza eman, etorkizunean ikasgelan zein eskolan euskara sustatzeko baliabideak sortu eta hizkuntzaren erabilera positiboa nolabait bermatu ahal izateko.

3. HELBURUAK

Aurkeztuko den lan honen bidez, aipatutako arrazoi horiek aztertu nahi dira, aurrez planteatutako galderei erantzuna bilatzen saiatuz eta hizkuntza jarrerari erreparatuz. Gai hau garrantzitsua izango da egungo egoera aztertu, eta honetaz ohartzeko, nolabait, egoera aldatzeko klabeak identifikatzeko. Horretarako, haurren, gurasoen eta tutorearen ikuspegiak, erabilera, ohiturak, etabar aztertu dira, honek testuinguru anitz batean duen eragina neurtu eta horrek izan dezakeen perspektiba negatiboa gutxitzeko asmoz. Finean, neurketa esanguratsua izango da arrazoi ezberdinengatik; zein ikuspegi nagusitzen den eta horretan zerk eragiten duen ikusteko, eta egoera hobetzeko egin daitekeena aztertu eta proposamenak bilatzeko.

Lan honen helburua da euskararekiko jarrera oro har zein den aztertzea, zehazki, Eibar bezalako herri batean, eskola publikoko komunitatean. Horrekin batera, jarrera horretan zein faktorek eragiten duten bilatzen da, haurren ikuspegiarekin batera, guraso zein tutorearena analizatuz eta horrek, nolabait, zein ondorio izan dezakeen ikusiz.

Azkenik, euskararekiko erabilera positiboa sustatzeko esku-hartze bat proposatzen da, motibazioa ardatz izanik, hizkuntzak duen garrantzia ikusarazi eta egunez egun naturaltasun eta askatasunez euskaraz aritzeko.

4. MARKO TEORIKOA

4.1 Hizkuntza-erabileran eragiten duten faktoreak

Sarri entzun ohi da euskal hiztunen kopurua handitu egin dela azkenaldian; izan lana bilatzeko aukerak zabaltzearen, seme-alabekin mintzatzeko edo beste arrazoi batengatik. Baina, testuinguruaren arabera, erabilera edota hizkuntzarekiko ikuspegia aldatu egiten da. Hau da, ez da berdina testuinguru euskaldun batean, edo “erdal euskaldunen” inguruan aritzea, euskaldun sentitu baina gaztelaniaz aritzen direnak, hain zuzen ere. Euskaraz moldatu arren, mintzatzeko zein oztopoak gainditzeko erraztasun bera ez edukita, gaztelaniara joko da. Igartzabalek (2015) aipatu bezala, hizkuntza bat baino gehiago elkar bizi direnean (gure kasuan gaztelania eta euskara), gertatzen da hautaketa egin behar izatearen kasu hau, estres linguistiko izena hartzen duen gertaera, hain zuzen ere.

Hortaz, pertsona bat hizkuntzen arteko aukeraketa baten aurrean dagoenean, Jauregik (2003) aipatzen duen “erraztasunaren printzipioa”ri lotuko zaio; hau da, energia-gastu gutxiago eskatzen duen hizkuntza lehenetsi eta aukeratuko da, esfortzu eta saiakerak murriztuz. Izan ere, euskaraz egin nahi izatea ez da nahikoa izaten askotan, eta nola jokatu jakin ezean, zer egin ez dakigula, aurrez aipatutako printzipioari eusten diogu (Igartzabal, 2015). Hiztunak bere hizkuntza erabili edo ez etengabe pentsatzen aritu behar izateak nekea sortzen baitu.

Elebidun orekatuen (hau da, euskaraz zein gaztelaniaz maila berean moldatzen direnak) joera nagusia, aldiz, euskara aukeratu eta erabiltzekoa da. Kasu horretan erabilera ez du aurrez aipatutako “erraztasunaren printzipioak” determinatuko, hizkuntza batean zein bestean erraz aritu baitaitezke. Ondorioz, haiengan taldeko identitateak eta hizkuntzarenganako sentimenduak, biek izango dute eragina (Jauregi, 2003). “Euskaldunok leialak gara euskararekiko, eta, euskara erabiltzeko aukera izanez gero, zintzo samar erabiltzen dugu” (Anaut, 2010: 25.or).

Hala, Jauregiren (2003) ustetan, bi hiztun mota hauek -bai erdal elebidunen euskarazko erraztasun txikiak, bai elebidun orekatuen euskararenganako atxikimendu eta maitasunak- biek dute zerikusi handia etxearekin eta eskolarekin, hau da, bertako ezaugarri zein bertan bizitakoarekin.

4.1.1 Etxea eta eskola

Etxean erabiltzen den hizkuntzak pertsona oroengan eragina izango du; hark markatuko du hiztuna, nahiz eta eskolan beste bat erabili. Azurmendi, Bachoc eta Zabaletak (In Azurmendi eta Luque, 2006) aipatu bezala, euskararen transmisio primarioak bereziki eragingo du haurraren. Transmisio sekundarioa hezkuntzaren bidez ematen dena litzateke; hizkuntza modu naturalean erabiltzeko bidea, alegia. Azkeneko horretan pasatako denbora luzea izanik ere, modu egokian eragin ezean, ez du zertan hizkuntzaren, edo kasu honetan, euskararen erabilera pizteko adinako indarririk izan; ez behintzat, hau, indarrez egin nahi bada.

Hala, erdal elebidunen kasuan, etxea ez da euskarazko gune bat; bertan nolabaiteko ezagutza egon daitekeen arren, ez baita praktika egiten. Hutsune hori betetzeko asmotan, eskolara jotzen dute askok, haien euskalduntzea bermatzen lagunduko duelakoan. Baina horrek, Jauregik (2003) azpimarratu bezala, ez du etxeak utziriko hizkuntzazko hutsunea estaltzeko indar nahikorik; etxeak markatu egiten baitu, eta

eskolak ezin du etxeak bermatu ez duena estali eta ordezkatu. Euskal elebidun eta elebidun orekatu gehienek aldiz, euskarazko ereduetan eskolatu ez ezik, gutxienez, gurasoetako bat ere euskalduna izan ohi dute. Ondorioz, haien egunerokotasuna hizkuntza horren bidez egin ohi dute. Hiztuna hizkuntzarekin batera haziz joan, eta ondoren, euskarazko eskolatzeak etxean bermatutakoa indartu, garatu, zabaldu baino ez du egin.

Beraz, etxea eta eskola dira haurtzaroko harreman sozialaren bi sare nagusiak. Bertako ezaugarriek zein bertan nola jarduten den (hala nola, hiztunen erraztasuna, jarrera eta jokaerak) guztiz baldintzatuko dute hizkuntzarekiko portaera. Jauregiren (2003) hitzetan, etxeak eskolak baino eragin sakonagoa du hizkuntza kontuei begira. Gainera, familiaren euskararen erabilerak euskara frogetan ez ezik, gainerako hizkuntzetan ere eragin positibo eta esanguratsua izan dezake (Azurmendi eta Luque, 2006). Hala ere, etxearen eragina indargabetu edo murriztu daiteke, baldin eta inguruan eskolaren babesa eta sostengua bermatzen ez bada. Baita alderantziz ere gertatu daiteke. Esaterako, D ereduan eskolatutako ikasle gaztelaniadunek euskaldunek jarraitzen dituzten pausuak eta garapena baldin badute, euskararen emaitza egokiak lortuko dituzte. Eta horrek haien ama-hizkuntza ez den beste hizkuntza batzuen ikaskuntzari lagun diezaiolke (Azurmendi eta Luque, 2006). Ondorioz, bata eta besteak elkarren beharra dute.

4.1.2 Lagunartea eta eskola

Eskolara heldu bezain pronto, haurren arteko harremanak osatuz doaz, eta ondoren, horiek kalean indartzen dira, etorkizunean determinatzaile izan daitezkeenak. Hauek osatzerako orduan, faktore ezberdinek eragina izan dezaketen arren, hizkuntzak ere zerikusia izan dezake bertan. Jauregiren (2003) aburuz, hizkuntzan aritzeko erraztasuna taldetxoak osatzearen aldagaietako bat izango da, eta horren arabera, bi talde osa daitezke. Lehenengo taldea, euskaraz erraz moldatzen direnek osatuko dute, ama-hizkuntza nagusiki euskara dutenak, etxean hori erabiltzen dutenak. Horien joera euskaraz erraz moldatzen direnekin aritzea izango da. Ondorioz, haien harremana euskarazkoa izango da, euskal elebidun eta elebidun orekatuek osatzen dutena, hain zuzen ere.

Bigarren taldea, aldiz, etxean euskara jaso ez duten haurrek osatuko dute; euskarazko gaitasuna mugatua dute hauek, eta gaztelaniaz aritzen direnekin batera osatuko dute taldea. Ondorioz, haien harremana gaztelaniazkoa izango da, harreman

informaletan bereziki, eta jarduera formaletan aldiz, euskara erabiliko dute (aurrerago aipatuko den gisan, eskolak soilik erabilera formalerako tresnak ematen dizkielako hauei). Eskolan aurrera doazen heinean, euskara erabiltzeko aukera galduko dute, bertan bakarrik erabili ahal izango baitute, erraztasuna eta ohiturarekin batera, beste hainbaten artean. Beraz, ez etxean, ez lagunartean, ez dute euskarazko praktika berezkorik jasoko, eta eskola amaitutakoan, hizkuntzarekiko kontaktua galduko da. Eskola bakarrik gelditzen zaie euskarazko iturri gisa, baina haren alderdi formala baino ez dute ezagutuko (Jauregi, 2003).

Hala ere, lehenengo taldean euskaraz aritzeko erraztasun handirik ez dutenak ere ager daitezke (baldin eta gutxi badira) eta elebidun orekatu izatera iris daitezke. Baita alderantziz ere. Bigarren taldean ere haur euskaldun batzuk izan daitezke, eta ondorioz, kasu horretan, euskaldunak gaztelania erabiltzera pasako dira.

Laburbilduz, eskola toki aparta da harremanak osatzeko, haurrak txikitatik baitaude eskola-giroan murgilduta. Etxeko hizkuntza-eraginak haurrak horrekiko duen erraztasuna marka dezake, eta, aldi berean, lagunarteak osatzeko garaian nabarmen jokatu (Jauregi, 2003).

Dena dela, bada, egun, etxean euskaraz bizi direnen familien kasuan kezka nagusi eta deigarri bat: gaztelaniaz ezer ez dakitela esan baino, haien seme-alabek ongi ez dakitela uste dute guraso askok, horrek arazoak ekarriko dizkietelakoan. Kezka hori, etxean ez ezik, eskolara ere iritsi da, bertako bileretan aipatu, eta etxean gaztelania ere erabili behar ote den planteatu izan da. Kasu horren errealitatea, aldiz, bestelakoa da. Izan ere, ziurrenik, lehenago edo beranduago guztiek gaztelaniaz ikasten baitute, gizarte eta inguruaren eraginez. Ondorioz, helduko da egun bat non, oinarri majoa eta erraztasun guztiak izango dituzten gaztelaniazko maila egokiaz jabetzeko (Anaut, 2010).

4.1.3 Etorkizunean zer?

Gazte eta haurrak euskararen etorkizun eta normalizazioan giltza direla jakinda, belaunaldi gazteei begira dago gizarteak, izan euskaldun, edo euskararen alde eta euskal mundutik hurbil, euskaldundu ez diren herritarrak ere (Amorrortu eta Ortega, 2010).

Hala, Jauregik (2003) argi dioenez, euskarazko erabilerak ez du ageriko aldaketarik somatuko, baldin eta eskolaz gain, ez bada euskarazko esperientzia luze eta

sakonik bermatzen talde informaletan, izan familia, lagun edo sare horizontaleko beste talderen batean. Horietan garatzen baitira benetan hizkuntzazko erraztasuna, atxikimendua eta ohitura, erabilera aldatzeko gaitasunarekin batera. Etxean euskara jaso duenak bide-erdi baino gehiago egina du, eta ondoren, etxean jasotako ikuspegia, informala, eskolari eta beste inizatiba bati esker osatuko du, honek eskaintzen dion ikuspegi formalarekin, hain zuzen. Horrek, ziurrenik, etorkizun batean familia euskalduna osatzera eramango du, eta hala ez balitz ere, euskararen alde egingo du.

Etxean euskara jasotzeko aukerarik ez dutenek, aldiz, euskalduntze-prozesua murriztuagoa dute; eskolan euskaraz aritu arren, jatorrizko sareak, familia eta lagunartekoak ez dira hala izango, eta ondorioz, nekez lortuko dute euskaraz aritzea. Izan ere, aurrez aipatu bezala, eskolak eskaintzen duen erregistro formaleko ezagutza izango dute soilik, honek baliabide informalaren falta sorrarazten dielarik. Aldaketa hori nola eman eta hutsune hori betetzea, hortxe dago gako nagusietako bat.

4.1.4 Gazteen erabilera: helduen pertzepzioak

Gazteen hizkuntza erabileran eskolak, lagunarte eta etxeak zein eragin duten ikusita, helduek gazteengan duten eragina eztabaidaezina da. Hala, helduek izan ditzaketen ideiek txikiengana efektu zuzena izan dezakete.

Aurrez aipatu bezala, euskararen erabiltze zein normaltze bidean gazteek zeresanik badutela badakite helduek, haien artean, aipatu bezala, honako ideia hau nagusituz: “Gazteek gutxi erabiltzen dute euskara eta euren erabilera bermatzea da euskararen normaltze-prozesuak daukan erronkarik garrantzitsuenetakoa” (Euskararen Aholku Batzordea, *in* Amorrortu eta Ortega, 2010: 129.or). Gazte guztiek “primeran” hitz egiten dutela, nerabezaroan gaztelaniara jotzen dutela edota euskararekiko konpromiso falta erakusten dutela dira heldu erdaldunen beste pertzepzioetako batzuk (Amorrortu eta Ortega, 2010). Lehena, aurrez aztertu bezala, zuzena ez dela baieztatu daiteke. Familia eta giro ezberdinen arabera bermatu ohi da; hau da, testuinguru erdaldunetan bizi diren ume eta gazte askok eskolan ikasten dute gehienbat, baina ez dituzte egunerokotasunean beharrezkoak dituzten hizkera-ereduak.

Bestalde, gazteen konpromiso faltari dagokionez, zein puntutaraino litzateke baieztapen hori egokia? Zeren, haiek inguruan dutenetik jasotzen dute, eta ez litzateke

zilegi helduek bermatzen ez duten zerbait haiei eskatzea. Hala, haur zein gazteek dituzten jarrera, uste eta aurreiritziak sakon aztertu beharko lirateke. Eta helduen kasuan, aldiz, hizkuntza-jarreraren inguruan ematen dituzten azalpen eta arrazoiak lagungarri izan daitezke. Horiek sakon ikertu beharrekoak dira, eta lan honetan zehar horretan ahaleginduko gara.

4.2 Euskararen erabilera

Gaztelaniadun elebakarra gaztelaniaz hitz egiten ari denean, ziur asko ez da etengabeko gogoetan ari erabiltzen ari den hizkuntzaren gainean. Gaztelaniaz egiten du, natural, eta ez du pentsatu beharrik zer hizkuntzatan egiten duen. Aurrez aipatu bezala, euskaraz ari denak, ordea, hautu bat egin du, eta egoera eta solaskide askorekin erabilera guztiz mekanizatua, ohikoa eta arrunta izatera iritsi arren, oraindik ere sarritan iruditzen zaigu euskaraz egiteko hautaketak baduela erabakia kontzienteki hartu izanaren nolabaiteko ukitua. Hau da, euskaldunak euskaraz egiten duenean, badaki eta ohartzen da euskaraz egiten ari dela eta ez gaztelaniaz eta horrek haren gogoan nolabaiteko isla izan behar du: nekea batzuetan, satisfazioa beste batzuetan (Anaut, 2010).

Datuen arabera, jakina da euskarak azkeneko hamarkadan hiztun asko irabazi dituela Euskal Autonomi Erkidegoan: 1981ean euskal hiztun kopurua %21,9 zen eta 2011an egindako neurketaren arabera aldiz, %36,5 (Amorrortu eta beste, 2016). Baina, ezin da ahaztu testuinguru ezberdinen eraginagatik errealitate anitzak dituela Euskal Herriak, hizkuntzaren erabileran eragina dutenak: egunerokotasunean euskara asko erabiltzen dutenak, testuinguru elebidunean bizi eta bi hizkuntzak erabiltzen dituztenak eta gaztelania nagusi izan eta euskara gutxitan erabiltzen dutenak (Amorrortu eta beste, 2016).

4.2.1 Euskararen erabilera ulertzeko klabeak

Euskararen erabileran, hainbat faktorek dute eragina; nagusiki, testuinguru soziolinguistikoak eta harremanek. Lehena oso presente egon ohi da. Testuinguru elebidunean bizi direnak, izan ohi dira zailtasun handienak dituztenak: harreman pertsonalak dituztenekin txikitatik euskaraz ez hitz egiteak hizkuntzarekin deseroso sentiaraztera daramatza. Hau da, txikitatik gaztelaniaz aritzeko ohitura hartu bada, nahiz

eta guztiek euskaraz jakin, zaila izango da ohitura hori aldatzen, ez bada, guztien aldetik asmo onez eta gogoz egiten.

Hala ere, testuinguruak ez du guztiz erabilera baldintzatzen; izan ere, harreman euskaldun solidoei esker, euskara erabiltzeko aukerak handitu egiten dira eta erlazio garrantzitsuenekin (familia, lagun eta lankideak) hizkuntza edo jarrera bat edo beste izateak eragina du.

Bestalde, badira beste hainbat faktore, aurrez aipatu bezala, erabileran eragina dutenak: gaztelaniaren presioak, ohiturak eta hiztunaren gaitasunak, hain zuzen ere. Izan ere, gaztelaniak presio handia sorrarazten duela zalantzarik ez dago; bai tarteko testuinguruetan zein euskara erabiltzen denetan ere, eta ondorioz, hizkuntza horretara jotzeko ohitura dago. Zergatik egiten zaigu zaila euskarari eustea euskaldun hartzaileekin (hau da, hitz egiteko gai izan ez arren, ulertzen dutenekin)? (Igartzabal, 2015). Bada, euskaraz ikasi arren, ez digutelako erakutsi gurea mantentzen solaskidea beste hizkuntza batean aritzen denean (Suay, *in* Igartzabal, 2015). Ondorioz, euskaraz aritzen garenok, gure eskua luzatzen dugu, gaztelaniara aldatuz.

Era berean, pertsona bakoitzarekin izandako hasierako hitzak joera ezberdinak sorrarazten ditu, eta oso zail suertatzen da hori aldatzen. Honako kasu hauek nagusitzen dira joera horietan: inguruan euskara hitz egiten ez dela uste izatea, hizkuntza eskolarekin erlazionatzea edota txikitatik sortutako harremanak gaztelaniaz izatea. Anaut-ek (2010) esan bezala, euskaraz jakin eta ezin erabiltzeak markatu egiten du. Batzuegan muga linguistikoa pasatzea eta hizkuntza batetik bestera igarotzea modu guztiz mekanikoan inkontzienteki gertatzen da. Beste batzuegan, berriz, hizkuntza aldatu beharrak etsipen puntu bat sortzen du, nolabaiteko gogoetak lagunduta.

Bestalde, norberaren hizkuntza-gaitasunak ere badu zeresanik. Askok euskara maila eskasa dutela pentsatzeagatik edota erratzeko beldurragatik eta erosoago sentitzeagatik ez dute hizkuntza erabiltzen. “Beharrezko hezkuntza maila amaitutakoan egoera kritikoa ematen da: hezkuntza arlotik kanpo dagoen erabilera garatu ezean, erabilera gabe gera daitezke hiztunak. Hiztun mota hauetan gaitasun eta erabilera guztiz erlazionatuta daude” (Amorrortu eta beste, 2016: 98.or).

4.2.2 Euskara hitz egitearen klabeak: “egitearen” garrantzia

Aurreko kasuaren harira, bada jendea euskaraz hitz egiteko aukerak aprobetxatzen ez dituen, nahiz eta aldeko jarrera izan, solaskideak euskaldunak izan arren, gaztelaniaz hitz egiten dute (Anaut, 2010). Baina, baita alderantziz ere; bada muga guztiak gaindituta ere hau egitea lortzen duena. Gakoa “egitean” dagoela azpimarratzen dute Amorrortu eta bestek (2016), hau da, hiztunaren aldeko jarreraren eta aktibo izatean. Hitztunaren egoera zenbat eta bortitzagoa izan, orduan eta jarrera aktiboago behar luke hark.

Hala ere, aldeko jarrera duten berbalari guztiek ez dute lortzen oztupoak gainditzen; aktiboek aldiz, zailtasunak gainditzeko eta hizkuntza erabiltzeko aukerak izateko estrategiak sortzen dituzte. Hortaz, garrantzitsua da tarteko testuinguruan bizi direnek, batez ere, hizkuntza erabiltzeko aukerak bilatu edota haiek sor ditzaten.

Baina, nondik datoz jarrera aktiboak? Halako portaeretan euskararekiko konpromisoa agertzen da, hau da, hizkuntzarekiko ekintza konkrituak egitearen aldeko gogoia, hain zuzen ere. Konpromiso hau ideologian eta balioetan oinarritzen da, identitate eta integrazioarekin guztiz lotuta doazenak, barne motibazioarekin batera. Bestalde, badira kasu batzuk eta arrazoi ezberdinek eraginda, zeinetan aldaketa linguistikoa gertatzen den: lehenago eskuarki maneiatzen ez zuen hizkuntza, norbere erreperitorioan barneratzen du, hau da, ohitura aldaketa suertatzen da. Hala, mintzatzaileetako asko norbere bizitzako momentu garrantzitsuetan bihurtu da aktibo; beste askok, ordea, ez dute aktibo bihurtzea lortu (Amorrortu eta beste, 2016).

Baina, zergatik gertatzen da hori? Bada, norberak dituen arrazoi propioengatik, izan erronka propioa gainditu edota inguruak horretara lagunduta, esaterako. Hala, norbere muga gainditzean, automatikoki, edo berez, pentsatu gabe erabiltzen zen hizkuntzan trukea ematen da. Dena dela, oro har, zein erabilera ematen zaio euskarari?

4.2.3 Euskararen balioa hiztunengan

Pertsona orok arrazoi edo motibazioren bat du hizkuntza berri bat ikasteko; izan, lana bilatzeko, beste pertsona batzuekin harremanetan egoteko, etab. Hizkuntza minorizatuen kasuan, aldiz, nagusiki bi motibazio ezberdintzen dituzte Amorrortuk eta bestek (2009): motibazio instrumentala, estatusarekin edo mugikortasun soziala irabaztearekin estuki loturik dagoenean, edota motibazio integratzailea, helburu nagusia

talde jakin batean integratzea denean. Horiak biak estuki lotuta doaz beste bi motibazio motarekin; barne eta kanpo motibazioekin, hain zuzen ere. Lehenak pertsona bakoitzaren barnean sortzen dira, hark nahi izateagatik, modu librean. Bigarrena, aldiz, indibiduoari ezarritako errealitatean oinarritzen da; kanpo presioa egon ezean, erabakia bestelakoa izango litzateke (nahiz eta zenbait kasutan kanpo presioak eragindako ekintzak barne motibazioa izatera pasa daitezkeen).

4.2.3.1 Balio instrumentala

Oso ohikoak izaten dira zenbait pentsaera euskal gizartean, hala nola, euskarak soilik lan egiteko balio duela edota euskara hezkuntza munduari zuzenki lotzea. Horrekin batera, maiz entzuten da zenbait hizkuntzek baliagarritasun edota erabilgarritasun handiagoa dutela. Horri, finean, balio instrumentala deritza. Hori aipatutakoan, ingelesa da guztioi burura datorrigun lehena. Euskara eta ingelesa instrumentalki konparatuz, ingelesak balio handiagoa izan dezake, baina desberdintasun nagusi bat somatzen da: ingelesa hizkuntza globala dela, euskara aldiz, minorizatua.

Amorrortuk eta bestek (2009) dioten bezala, euskara eta ingelesa balio instrumentalari begira lehian arituz gero, argi dago euskarak galdu egiten duela, bata eta bestearen balio instrumentalak ez baitira konparagarriak. Izan ere, biek funtzio ezberdinak dituzte eta haien “erabilgarritasuna” esparru ezberdinetara bideratuko litzateke. Azkeneko urteetan euskararen erabilerari begira, balio instrumentala handitu dela esatean, kanpo presioen eragina baieztatu daiteke; nagusiki esparru publikoan, hezkuntzan, komunikabide eta administrazioan, hain zuzen ere (Amorrortu eta beste, 2009). Baina, nahikoa al da kanpo presioa euskararen normalkuntzari begira?

4.2.3.2 Motibazio integratzailea

Aurrez aipatu bezala, motibazio mota hau talde batean integratzeko helburua dagoenean ematen da, hau da, euskaldunon identitatearekin estuki loturik doana. Hizkuntza euskal identitatea osatzen duten elementu garrantzitsua bat. Hala ere, euskal biztanleen artean jarrera desberdinak izan ohi dira hizkuntzekiko, hala nola; gaztelania euskal hizkuntza gisa ez onartzea edota euskararen inguruan ezer jakin nahi ez izatea. Oraindik ere hizkuntzaren alderdiak, euskararen kasuan bereziki, borroka ideologiko batean oinarritzen dira (Amorrortu eta beste, 2009). Norberaren pentsatzeko erak eragina izango du hartzen dituen erabaki linguistikoetan. Eta pentsatzeko modu ezberdin horiek borroka edo gatazka moduko bat sor dezakete, kasu honetan, bi hizkuntza nagusi

izateagatik (gure inguruan sortzen dena, hizkuntzak ukipenean egoteagatik, hain zuzen ere).

4.3 Hizkuntza eta ideologia

Aurrez esan bezala, euskara oraindik ere borroka ideologiko baten barne dagoela esan ohi da, eta hizkuntza horren erabilera integratzea pentsakera edo jarrera kontua dela. Gai hau lanaren funtsa ez bada ere, haria jarraitzeko lagungarria izan daiteke. Hasteko, honako galdera hau planteatu beharko litzateke: garrantzitsua al da euskara euskal gizartean integratzeko?

Orokorrean ezetz uste da, euskara jakin gabe, gaztelaniaz baliatuta lasai asko bizi daitekeela Euskal Herrian. Baina, euskal hiztun kopuru altua dagoen testuinguruetan, egoera nolabait aldatu egiten da. Gurasoek haien haurrak eskolatzeko hartzen dituzten erabakien arrazoiak bat euskararen balio integratzailea izan daiteke (Amorrortu eta beste, 2009). Hau da, haien egunerokotasun zein harremanetan euskara erabili ez arren, haien seme-alabak D ereduan matrikulatzen dituzte, isolatuta geldituko diren beldurrez. Arrazoi hori ulertzeko, “bi mundutan” bizi direnen kasuak aztertuko dira jarraian. Izan ere, Euskal Autonomi Erkidegoan bizi diren biztanleen artean, errealitate ezberdinak daude, testuinguruagatik, harremanengatik, etab. Ondorioz, egoerak “bi mundutan” bizitzera daramatza zenbait pertsona.

Termino horretaz ari garenean, honako hau esan nahi da: euskarari lotutako mundu bat dagoela eta euskaraz ez dakienak ez daukala mundu horretara sarbiderik, gaztelaniazko munduarekin baino ez daukala lotura (Amorrortu eta Ortega, 2010). Hori pairatzen dutenak honako egoeraren batean aurki daitezke:

- Bi mundutan bizitzea horretaz konturatu gabe. Hau da, euskarari lotutako beste mundu bat dagoen berri ez dutenak.
- Bi mundutan bizitzea euskarari lotutako mundua existitzen dela jakinik eta hori positiboki baloratzea.
- Bi mundutan bizitzea, baina bertara sarbiderik izan gabe. Negatiboki baloratzen dute hori, aurreiritziz jositako jarrerak izatearekin batera.

Azkeneko jarrera negatiboak bi faktorek sortutakoak dira; alde batetik, euskarari lotutako munduaren inguruko ezjakintasuna (eta horri lotuta doazen aurreiritzi kultural

eta linguistikoak). Bestetik, euskal gizarteko eztabaida politikoak sortutakoa, ezker abertzale edo euskal nazionalista izatearekin lotura egiteagatik eta euskara kulturarekin erlazionatzea oztopatuz. Amorrortu eta besteren (2009) hitzetan, despolitizatze bidea hizkuntza modu naturalean erabilia emango da; erabilera normalizatuta egon eta ideologia nazionalista ez duten pertsonen ere hizkuntzarekiko konpromisoa agertzen dutenean.

4.4 Aurreiritziak

Gizarteak eta guk geuk aurreiritziak sortu eta indartzen ditugu; zenbaitetan positiboak izan daitezkeen arren, beste batzuetan negatiboak ere izan daitezke, eta hala gertatzen da hizkuntza arloan ere. Kasu honetan, euskara bereziki aurreiritziz josia dago. Hala, aurreiritziz jositako hiztunak garelako esan dezakegu, parean daukagunari nolabaiteko begirunea edo errespetua zor diogula uste baitugu, eta nahikoa izaten da hark gaztelaniaz hitz bat esan, guk geuk hizkuntza aldatu eta harenera moldatzeko (Igartzabal, 2015).

Euskara zaila dela oso zabaldua dago, zeinak Amorrortu eta besteren (2009) hitzetan, berezko usteari zailtasuna gehituz gero, ezkutuan gelditzen den kontrako jarrera sor dezake. Gainera, haurrek txikitatik euskara edota hainbat hizkuntza arazorik gabe ikas dezaketela esan ohi da, baina helduek aldiz, izugarritzko zailtasunak dituztela. Uste horrek gaztelaniaz mintzo diren gurasoei erabakia hartzen lagun diezaieke haien seme-alabak eskolatzeko orduan, eredu elebidun edo eleanitzetan matrikulatzeko, nahiz eta nagusien ikasteko zailtasunaren ustea babestu. Azkenik, euskara hitz egiteko hizkuntza ondo ezagutu beharra dagoela uste da. Hau beste ideia bati lotzen zaio estuki; “euskaldun berriek ez dakite ondo euskaraz, batuaz hitz egiten dutelako, euskaldun zaharrek aldiz bai” (Amorrortu eta beste, 2009: 177-178.or).

Ikusmolde horiek kontuan hartuta, orokortasuna gainditzeko esfortzua egitea beharrezkoa da, ikaskuntza errazteko motibazio eta elementuen bidez eta balorazio positiboa bermatuz. Jarrera egoki eta barne motibazioak negatibotasuna baretu dezakete (Amorrortu eta beste, 2009).

Aurrekoaren harira, hizkuntza katalogatzeaz gain, “bestea” identifikatzeko edo sailkatzeko ere gauza bera egiten dugu; horretarako nolabaiteko etiketak erabiliz. Hala,

gure inguruko pertsona bakoitzaren balorazio linguistikoa (kontzienteki edo inkontzienteki) eta elkarbanatze-linguistikoak etiketatze horren baitan gertatzen dira.

Beren jokabide linguistikoa erabaki dutenek oso etiketa indartsua izaten dute eta normalean beti berdin jokatzen dute, bestea norberaren alorrera eramaten saiatzen. Beste batzuek aldiz, solaskidearekiko moldatzeko nolabaiteko malgutasuna eta prestutasuna agertzen dute. Baina, egoera askotan, negoziazio moduko bat gertatzen da: hizketan hasi baino lehenago, ez da erabili beharreko hizkuntza adosten. Hiztunek egoera jakin horren nolabaiteko balorazioa egin, eta gauzak nondik joanen diren asmatzeko aurreikuspena egin ohi da (Anaut, 2010).

4.5 Aniztasun dialektala: euskaldun zahar vs euskaldun berri eztabaida

Aurreiritzien atalean aipatu bezala, euskaldun berri-euskara batua lotura eta euskaldun zaharren arteko bereizketa aipatu da, nolabait euskararen ezagutza mailari lotuta. Jarraian, erabilera, funtzioa, harremanak, loturak, etab. terminoetan sakonduko da.

Euskal testuinguruan, aurrez aipatu bezala, ofizialak diren bi hizkuntza nagusitzen diren arren, euskararen barnean bi aukera nagusitzen dira: tokian tokikoa (euskalkia) edo estandarra (batua deiturikoa). Euskara aniztasun dialektiko handikoa da; euskalki nagusienei ere zonaldeko zenbait kutsu gehi baitzaizkioke. Aurrerago azalduko den moduan, azkeneko hau erabiltzen dutenak dira “benetako euskaldun” kontsideratzen direnak, eta estandarren bidez komunikatzen direnak, aldiz, “berriak” direnak, nagusiki, hezkuntza munduarekin (eskola, euskaltegia...) erlazionatzen dira.

4.5.1 Batua eta euskalkien balio eta funtzioak

Euskalkien inguruan, orokorrean balorazio positiboa izan ohi da; euskara aberasten dutela uste baita “benetako euskara” dela, eta ondorioz, horiek mantendu behar direla. Ez da berdin gertatzen, ordea, batuaren kasuan; estandarra jakitearen erabilgarritasuna eta “komunean dugun hizkuntza” gisa ezagutzen den arren, ez dela benetako euskara iritzi dute askok, artifiziala edo hotza delakoan. Hainbat hiztun berrik inbidia erakusten dute euskalkia erabiltzen dutenen aurrean, askok ez baitute horretara iristeko modurik.

Funtzioei dagokienez, batua erregistro formal eta akademikoarekin identifikatzeko joera orokortua da. Euskaldun zaharren kasuan, ordea, euskalkia ahozko gisa eta batua idatzizko gisa ikusi ohi dira. Baina, hizkuntza erabiltzerako orduan badira kontraesanak kasuren batean, zeinetan, euskaldun berriak izan arren, testuinguru formal edo akademikoetan batua erabiltzeko zailtasunak dituzten, Zeanurin, Tolosan edota Zumaian, esaterako (Amorrortu eta beste, 2016). Horren harira, uste da euskaltegian ikasitakoak ez duela balio kalean erabiltzeko, “kaleko erregistroan, euskaltegian ikasitakoa desikasi behar dela”; eta alderantziz, “titulua ateratzeko, kalean ikasitakoa desikasi behar dela” (Amorrortu eta beste, 2016: 156.or). Gainera, euskalkiari balio integratzailea egozten zaio, hau da, pertsona talde baten parte izaten lagun dezake eta ondorioz, elementu klabea da euskaldun berriarentzat.

Hala ere, batua hitz egiten duten hiztun berriengan, batez ere, zalantza garrantzitsu bat suertatzen da: mota bakoitzak zein funtzio duen jakin arren, ez dute bietaz baliatzeko baliabide nahikorik (Amorrortu eta beste, 2016). Izan ere, berria izateak, sarritan, erregistro formaleko ezagutzara mugatzen du hizkuntza, baliabide informalik ezta euskalkien inguruko harremanik bermatu gabe. Euskara estandarra erabiltzen dutenek, orokorrean, euskalkiarekiko edota euskaldun zaharrekiko errespetua adierazten dute eta euskaldun berriaren esfortzua ulertzen dute. Dena dela, honako hau azpimarratzen da: “euskalkiei hurbiltzen saiatzen ez den batua euskaldun herrena da eta euskalkiarekin munduaren amaierara iristea pentsatzen duen euskaldun zaharra XXI. mendeko euskaldun herrena da” (Amorrortu eta beste, 2016: 160.or).

4.5.2 Kategoriak: identitate linguistikoa eta legitimazioa

Hizkuntza gutxituetako hiztun berriek seguritate eta konfiantza falta eta egiazko hiztunak ez izatearen sentimendua izan ohi dituzte. Beste hitz batzuetan esanda, ez dira hiztun legitimo edo benetakoak sentitzen (O’Rourke & Ramallo *in* Amorrortu eta beste, 2016).

Jaiotzez hizkuntza izan duena, komunitate linguistikoko erreferente gisa kontsideratzen da, egiazkotasunari dagokionez, “benetako hiztun” (Pujolar 2007; Irvine & Gak 2000; Grillo 1989; Skutnabb-Kangas & Phillipson 1989 *in* Amorrortu eta beste, 2016). Hori dela eta, sozialki zenbait hitz egiteko modu beste batzuk baino baloratuago

daude, hau da, zinezkotasuna ematen zaie. Hala, identitate linguistiko bat edo beste izateari begira, kategoriak ezberdintzen dira:

-*Euskaldun zaharra*: Euskarazko hiztun onarekin identifikatzen da termino hau, euskaldun hutsarekin, familian ikasi eta euskalki anitza izateagatik.

-*Euskaldun berria*: Termino honekin identifikatzen den pertsonaren diskurtsoa “falta zaidana”, “ez daukadana”-rekin oso markatua dago, nolabait, erabateko euskal hiztuna ez denarekin. Gainera, honela definitzen diren pertsonetako askok batua erabiltzen dute.

-*Euskalduna*: Termino honekin definitzen den identitatea, aldiz, euskaldun berri-
tik igoera jasan izan balu bezala agertzen da. Hots, atzean utzi duen zerbait izango balitz bezala, gainditu duen zerbait. Beste era batean esanda, *euskalduna* izatea, nolabait, *euskaldun berria* izatea baino hobea da. Modu honetan autodefinitzen diren pertsonetako askok *euskaldun zaharrek* dituzten ezaugarriak izan ohi dituzte, hala nola, gaitasuna, familia eta lagunekiko erabilera, eta kasu askotan, euskalkiaren ezagutza.

Aurrez azaldutakoa eta bertan aipatutako terminoetatik, *euskaldun berri* eta *euskaldun* autodefinitzen direnek *euskaldun zahar* kategoriarekiko jarreratik *continuum* bat dagoela ondoriozta daiteke, jarraian agertzen den eskeman azaldu bezala (Ortega et al. *in* Amorrortu eta beste, 2016):

Euskaldun berria-----Euskalduna-----Euskaldun zaharra

Garrantzitsua da kategorien artean mugitzeko egon daitekeen aukera, izan ere, hiztun berriek sentitu ditzaketan mugak gainditu daitezkeela adierazi nahi baitu horrek. Alde batetik, hiztunak bidezkoago sentitzen diren kategorietara aurreratzea eta euskara erabiltzeko konfiantza handiagoa izatea albiste ona da, eta berezko hiztuna/hiztun berria dikotomia gainditzeko modu bat (inork gustuko ez duena, baina oraindik ere euskal hiztunen identitatearen barne izaten jarraitzen duena, horiek elikatzen dituen ideologiari jarraiki: ea nor den benetako euskal hiztuna, hiztun ona, etab.).

Bestetik, hiztun berriak momenturen batean *euskaldun* identitatea bere egin dezake, edo besterik gabe izan ditzakeen konplexuak alde batera uzteko gai izan daiteke seguru sentitzen den lekuetan. Horretarako, funtsezkoa da espazio horiek (ez dute zertan espazio fisikoak izan) indartzea, kategoriak bertan behera uztea eta ardurarik gabe aritzea, hiztun berriak inolako beldur gabe hizkuntza erabil dezan (Amorrortu eta beste, 2016).


5. DATU BILKETA

5.1 Datu enpirikoen aurkezpena


Ikasleei egindako inkestaren emaitzak

Ondoren agertuko diren grafikoen bidez, Eibarko San Andres eskolako Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleei pasatako inkesten emaitzak azaldu nahi dira. Horretarako, galdera anitzen bidez (ikus 1.eranskina) haien hizkuntza-gaitasuna, egunerokotasunean euskara erabiltzeko ohitura, hizkuntzarekiko duten jarrera eta euskalkiez galdetu zaie. Horrela, gai nagusi horien baitan azpigai ezberdinak jorratu ditugu. Jarraian aurkezten dira ikasleen inkestako galdera bakoitzaren emaitzak, ehunekoetan emanak:


1-Zein da zure ama-hizkuntza?




2-Zenbat urterekin hasi zinen euskara ikasten?




3-Hizkuntzen ezagutza maila




4-Zure amarekin eta aitarekin zein hizkuntza erabiltzen dituzu?



5-Normalean, zein hizkuntza erabiltzen duzu eskolan?




7-Zure ustez, zein hizkuntzatan pentsatzen duzu?




6- Zein hizkuntza erabiltzen duzu gehien eskolatik kanpo?




8-Garrantzia ematen al zaio zure ama-hizkuntzari gelan? Kontuan hartzen al da?




9-Nire familia eta lagun giroan euskarak presentzia...





10-Ikusten al duzu zure burua hemendik 10 urtetara euskara erabiltzen?





11-Hizkuntzak ikastea gustuko duzu?



12-Beste hizkuntzaren bat ikastea gustatuko litzaizuke? Zein?




13-Noizbait sentitu al zara euskara ikastera behartuta? Eta euskaraz mintzatzera?






14-Aukera izango bazenu, gaztelania hutsez ikastea nahiago zenuke?




15-Zein hizkuntza duzu gustukoena hitz egiten duzun artean?




16-Euskara gustatzen al zaizu? Zergatik?




17-Nola sentitzen zara euskaraz hitz egiten duzunean?




18-Zein esaldirekin zaude ados?




19-Etorkizunean euskara jakitea baliagarria izango zaizula uste al duzu? Zertarako?




21-Telebista zein hizkuntzatan ikusten duzu?




20-Euskara ikasteko eta erabiltzeko daukadan gogoia...




22-Zein hizkuntzatan ikusten dituzu gustukoena dituzun marrazki bizidun edo telesailak?




23-Zein hizkuntzatan entzuten duzu musika?




24-Ezagutzen al duzu euskalkirik?



25-Euskalkia eskolan entzuten al duzu?





26- Zerekin erlazionatzen duzu euskalkia?



27-Nola deskribatuko zenuke euskalkia?


28- Zer uste duzu euskalkia eta euskara batuaren inguruan eskolan? Nire ustez...




Gurasoei egindako inkestaren emaitzak

Ondoren agertuko diren grafikoen bidez, Eibarko San Andres eskolako Lehen Hezkuntzako 4.mailako ikasleen gurasoei pasatako inkestaren emaitzak azaldu nahi dira. Horretarako, galdera anitzen bidez (ikus 1.eranskina) haien hizkuntza-gaitasuna; egunerokotasunean euskara erabiltzeko ohitura, honek duen presentzia, hizkuntzarekiko duten jarrera, euskaldun berri-euskaldun zahar gaztazkaz eta euskalkiez galdetu zaie. Jarraian ditugu emaitzak ikusgai.

1-Zein da zure ama-hizkuntza?




2- Hizkuntzen ezagutza-maila




3-Euskara jakitekotan, zein mailatan kokatzen duzu zure burua?




4-Zure etxean zein hizkuntza erabiltzen dira?




5-Zein da egunerokotasunean gehien erabiltzen duzun hizkuntza? hizkuntza?




6-Zein da zure seme-alabekin nagusiki erabiltzen duzun hizkuntza?




7-Zein da zure seme alabak D ereduan matrikulatzearen arrazoia?




8-Zure ustez zein hizkuntzatan pentsatzen duzu?




9-Nire etxetik kanpo, euskarak presentzia...




10-Hizkuntzak ikastea gustuko al duzu?




11-Hizkuntzaren bat ikastea gustatuko litzaizuke? (Erantzuna baiezkoa bada, zein?)




12-Noizbait sentitu al zara euskara ikastera behartuta? Eta mintzatzeraz




13-Noizbait sentitu al zara euskara erabiltzeagatik (edo ez erabiltzeagatik) epaitua? (Baiezko kasuan zehaztu)






14-Noizbait sentitu al zara zure euskara mailagatik epaitua?



15-Aukera izango bazenu, gaztelania hutsez bizitzea nahiagoko zenuke? Zergatik?




16-Zein hizkuntza duzu gustokoen, zergatik?




17-Euskara gustatzen al zaizu?




19-Zein da euskarari buruz duzun iritzia?




18- Zein esaldirekin zaude ados?




20- Euskara ikasteko eta erabiltzeko daukadan gogoia...




21-Ondorengo baieztapenetatik bat zatozenarekin aukeratu




23-Ondorengo bi esaldietatik zeinek laburtzen du hobekien zure iritzia?




22-Egunerokotasunean zer egiten dut euskararen alde?




24-Zergatik da garrantzitsua euskaraz ikasteko esfortzua egitea




25-Administrazioan euskararen alde egiten ari diren ekintzetatik, adierazi, zein neurritan zauden ados ondorengo baieztapenekin




26-Euskaldun berriak eta euskaldun zaharrak, biak kontsideratzen al dituzu “benetako euskaldunak”?




28-Euskaldunen artean kategoriak (euskaldun zahar, euskaldun berri, etab.) ezberdintzen direla uste duzu?




27- Honako baieztapenen artean, zeinekin zatoz bat? Euskara batua(k)...




29-Euskara erabiltzea ideologiari, politika eta/edo nazionalismoari lotuta dagoela uste duzu?



30- Euskara aurreiritziz josita dagoela uste duzu?



31-Zein aurreiritzi entzun/ezagutzen dituzu?



Tutoreari egindako inkestaren emaitzak

Guraso zein ikasleei pasatako inkestez gain, Eibarko San Andres Eskolako Lehen Hezkuntzako 4.mailako ikasleen tutoreari ere galdeketa egin zitzaion, hark ikasgelan ikusitakoa zein haren pentsamendua aztertzeke asmoz. Hala, hark emandako erantzunak jaso dira zuzenean (kasu honetan, pertsona bakarra izanik, emaitzak ez dira grafikoetan aurkeztuko).

1-Zein da zure ama-hizkuntza?

Euskara

2-Hizkuntzen ezagutza-maila: (bikain – ongi – hala nola – oso gutxi)

Euskara	Bikain
Gaztelania	Bikain
Ingelesa	Ezer
Frantsesa	Oso gutxi
Arabiera	Ezer
Beste bat (zehaztu):	-

3-Hizkuntza berriren bat ikastea gustatuko litzaizuke? Zein?

Ez

4-Zein da egunerokotasunean gehien erabiltzen duzun hizkuntza?

Euskara

5-Zure ustez, zein hizkuntzatan pentsatzen duzu?

Euskaraz

Ikasgelako hizkuntzak

6-Zeintzuk dira zure gelako haurren ama-hizkuntzak? Zerrendatu, mesedez.

-Euskara

-Gaztelania

- Arabiera

7-Oro har, zure gelaiko haurrek zer hizkuntza darabilte euren artean?

Ikasgela barruan euren artean: Gaztelaniaz eta euskaraz

Ikasgela kanpoan euren artean: Gaztelaniaz

Irakasleari hitz egiterakoan gela barruan: Euskaraz

Irakasleari hitz egiterakoan gela kanpoan: Euskaraz

8-Zure ustez, zergatik aukeratzen dute umeek hizkuntza hori elkarrekin aritzeko?

Nagusiki etxetik dakarten hizkuntza delako, edota kalean erabiltzen dena delako.

9-Zein jarrera dute ikasleek euskararen aurrean?

- Bertako euskaldunek: Positiboa orokorrean
- Euskaldun berriek: Positiboa orokorrean
- Bertako gaztelaniadunek: Orokorrean baloratzen dute baina denetarik dago
- Kanpoko gaztelaniadunek: Ez asko
- Atzerritarrek: Denetarik baina orokorrean ez asko
- Beste batzuk (egotekotan): -

10-Zein zailtasun izan ditzakete haurrek euskara hitz egiteko? Honen aurrean zein estrategia erabiltzen dituzu?

Etxean ez erabiltzeak edo iritsi berriak izateak zailtasunak sor diezaieke. Kasu horretan eskolak soilik ematen dio euskara ikasi eta erabiltzeko aukera, baina modu formal batean.

11-Nola jokatzen duzu umeak euskara ez den beste hizkuntza batean ari direnean?

Euskaraz aritzeko esaten diet. Batzuetan, haien ama-hizkuntzan ari direnean, zerbait ulertu ez badute esaterako, hura erabiltzen uzten diet.

12-Gela barruan, entzuten al duzu euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntzarik? Noiz? Nola jokatzen duzu horren aurrean?

Ez asko, baina tarteka, zerbait ulertzen ez dutenean, esaterako, ama-hizkuntza arabiera duen batek, hizkuntza bera duen beste bati nola esaten den galdetzen diot, eta haren hizkuntzan esan.

13-Ikasleen artean, oro har, zein motibazio mota nagusitzen da hizkuntzarekiko, Instrumentala (tresna bezala, kanpo presioak eraginda) edo integratzailea (identitatearekin lotura duena)?

Instrumentala orokorrean.

14-Oro har, zer jarrera dute gurasoek euskararekiko, zure ustez?

- Bertako euskaldunek: Positiboa orokorrean
- Bertako gaztelaniadunek: Ez dute gehiegirik baloratzen
- Atzerritarrek: Ez dute gehiegirik baloratzen
- Euskaldun berriek: Positiboa orokorrean
- Beste batzuk (egotekotan): -

15-Hitz egiten al duzu gurasoekin euskara ikasi eta erabiltzearen garrantziaz? Azaldu labur, mesedez.

Kurtso hasierako bileran azaltzen dugu euskara menderatzearen garrantzia ikaslearen hezkuntza garaian

16-Zure ustez, zer garrantzia ematen diote familia autoktonoek euskarari? Eta ingelesari?

Ez dute erabiltzen. Arlo bat bezala ikusten dute

17-Zure ustez, zer garrantzia ematen diote familia atzerritarrek euskarari? Eta ingelesari?

Ez behar beste. Arlo bat bezala ikusten dute.

18-Zer jarrera dute ume autoktonoek euskararekiko? Eta ingelesarekiko?

Ez dute erabiltzen. Arlo bat bezala ikusten dute.

19-Zer jarrera dute atzerritarren seme-alabek euskararekiko? Eta ingelesarekiko?

Ikastea nahi dute. Besteak bezala.

Hizkuntza-jarrera

20-Zein puntutaraino da garrantzitsua euskara integratzeko?

Behar beharrekoa da eskolako sisteman integratzeko

21-Etxean dauden euskararekiko gabeziak indartu beharko al lituzke eskolak?

Bai

22-Noizbait sentitu al zara euskara erabili izanagatik edo erabili ez izanagatik epaitua? (Baiezko kasuan zehaztu). Ez

- Arraro begiratu naute euskara erabiltzeagatik
- Arraro begiratu naute euskara EZ erabiltzeagatik
- Modu txarrean hizkuntzaz aldatzeko eskatu didate
- Beste bat (zehaztu):

23-Noizbait sentitu al zara zure euskara mailagatik epaitua?

Ez

24-Zein da euskarari buruz daukazun iritzia?

Eroso eta gustura sentitzen naiz euskaraz egiten dudanean.

- Ezertarako balio ez duen hizkuntza bat da. Euskara ikastea alferrikakoa da.
- Aukera izanda, nahiago dut beti gaztelaniaz egin, errazagoa zaidalako.
- Euskara gehiago erabiltzea gustatuko litzaidake.
- Euskara oso polita iruditzen zait, baina zaila egiten zait erabiltzea.

Euskara “nireago” den hizkuntza moduan sentitzen dut.

25-Zein esaldirekin zaude ados?

Euskara, ingelesa eta gaztelania baino garrantzitsuagoa da

Euskara, ingelesa eta gaztelania, hirurak garrantzitsuak dira

Ingelesa eta gaztelania, euskara baino garrantzitsuagoak dira

26-Ondorengo bi esaldietatik zeinek laburtzen du hobekien zure iritzia? Borobildu ezazu

Nire ustez, euskara, euskaldunon hizkuntzetako bat da, ez euskaldunon hizkuntza nagusia

X Nire ustez, euskara euskaldunon hizkuntza nagusia da.

27-Administrazioan euskararen aldeko egiten ari diren ekintzetatik, adierazi, zein neurritan zauden ados ondorengo baieztapenekin.

1	2	3	4	5	6
Ez nago batere ados	Ez nago ados	Ez ados ez desados	Ados nago	Oso ados	Ez dakit

*Ezinbestekoa da publikoari begira dauden langileek euskara hitz egitea

1	2	3	4	5 X

*Euskararen politika linguistikoak euskara indarrez sartzen du

1	2	3 X	4	5

*Euskal hiztunen eskubideak errespetatu daitezkeen funtzionarioak elebidunak izan beharko lirateke

1	2	3	4	5 X

* Arriskuan dagoen hizkuntza bat salbatzeko, euskara adibidez, neurriak hartu beharko lirateke.

1	2	3	4	5 X

28-Euskara erabiltzea ideologiari, politika eta/edo nazionalismoari lotuta dagoela uste duzu?

- Bai, soilik politikari
- Bai, soilik ideologiari
- Soilik nazionalismoari

X Guztiei

Ez

Beste bat (Zehaztu):

29-Euskara aurreiritziz josita dagoela uste duzu?

Bai. Zehaztu:

X Ez

30-Zein aurreiritzi entzun/ezagutzen dituzu?

Euskara zaila da

Haurrek errazago ikasten dute hizkuntza

Euskara hitz egiteko hizkuntza ondo ezagutu beharra dago

Guztiak entzun ditut

X Beste bat (zehaztu): Ez dut uste euskara aurreiritziz josita dagoenik

5.2 Datuen azterketa

Ikasleak

Aztertutakoaren arabera, ikasleek gaztelania erabiltzen dute etxean nagusiki, nahiz eta %74k euskara txikitatik ikasi, eta bertan maila ona dutela uste izan.

Erabilerari dagokionez, azpimarratzekoa da espazioa zein momentua; hau da, ikasgela barruan gehiago erabiltzen da euskara ikasgelatik kanpo baino, oro har, irakasleekin. Hau da, hizkuntza ikasgelarekin zein bere alderdi formalarekin lotzen dute, ikasketara mugatutako tresna soilik bailitzan. Euskara berezko hizkuntza ez duenak ez du horren alderdi informala ezagutzen eta ondorioz, ez du horretara jotzeko baliabiderik. Hala, aisialdian ere, gaztelaniara jotzen da, %21 soilik aritzen baita euskara hutsez.

Gainera, familia eta lagun giroa aztertuta, euskarak presentzia txikia du, %27arengan ez du presentziarik, %26arengan oso presentzia txikia eta %21arengan aldiz, oso presentzia handia. Etxean erabiltzen den hizkuntzak markatu egingo du ikaslea, honek gurasoen eredua jarraituko baitu (gurasoen atalean sakonduko da ideia hori

gehiago). Horrek, halaber, eragin zuzena izango du telebista eta musikaren aukeraketan, gaztelania nagusitzen dela ikusi izan da; telebista %47k ikusten du gaztelaniaz, eta soilik %11k euskaraz. Konkrétuki marrazki bizidun gustukoenez galdetzean, %35ek euskaraz ikusten dituen arren, %39k gaztelaniaz ikusten ditu, nahiz eta euskaraz ere badauden.

Aipatutako bi faktore indartsuek (eskolak eta familiak), hiztunen hizkuntza-erraztasunarekin batera, hauen jarrera eta jokaerak zuzenean baldintza ditzakete, hauen ohiturak finkatu eta hiztunaren gaitasunetan zuzenki eraginez.

Eragin horrek lotura zuzena du, ikasleei euskara erabiltzerakoan zer sentitzen duten galderarekin. %39k eroso eta gustura sentitzen dela onartu du, baina era berean, %33ri gehiago erabiltzea gustatuko litzaiokeela eta %17ri polita iruditzen zaion arren, zaila egiten zaio erabiltzea. Beraz, euskaraz egin nahi izatea ez da nahikoa kasu honetan; izan gaztelania egindako presioagatik, ohituragatik, txikitako harremanak hizkuntza batean finkatuta izateagatik, etab. horrek guztiz markatu egiten ditu ikasleak. Hala ere, hizkuntza hau ikasten jarraitzeko gogoak, nonbait, emaitza positiboak eskaintzen ditu, %78k baieztatzen baitu hori, eta hori erabiltzearen gogoaren gaineratik agertzen da %57an. Izan ere, %42k noizbait euskaraz mintzatzera behartuta izan dela onartu baitu, eta %26 aldiz, hau ikastera, hau da, inguruak egindako presioaren eraginez. Horrek hizkuntza erabiltzea baino, gorrotoa edo baztertua eragin dezake, eta behartze horren eraginak ikasle ororen hautaketan izango du zeresana.

Bestalde, hizkuntzaren balorazioak alderdi ezberdinak ditu, positiboa tarteka, eta negatiboa beste hainbatetan. Hala, nagusiki gaztelania gustukoenen duten hizkuntza gisa du %47k, baina %84k euskara gustuko du. Gainera, gaztelania, ingelesa eta euskararen garrantzia maila berean daudela uste du %83k, azkeneko hori baliogarria dela baieztatuz. Horren harira, euskara gustuko izanaren arrazoi nagusia, “erabilgarria dela” izan da, hau da, balio instrumentalari begira, eta ondorioz, nolabait, etorkizuna positiboki ikusten dute; %11k gaztelania hutsez biziko litzatekeela adierazi arren, %68k etorkizunean bere burua euskara erabiltzen ikusten du, eta %11k ez daki, baina haietako batek ere ez du ziurtasunez ezetz eman.

Galdetegiaren azkeneko atalean, euskalkien inguruan galdetu zitzaizen haurrei. Ikasle batzuek ezagutzen zituzten arren, %53k ez du honen berririk izan, eta hau ezagutu izan dutenek, gurasoekin lotzen dute batez ere, %33k “polit” gisa definituz. Hori zenbait ondorio ateratzeko lagungarri izan daiteke.

Aurrez aipatutako zenbait ideiek, besteak beste, ikaslea hizkuntza ikastera eta batez ere hitz egitera behartu izanak eta euskalkia ez ezagutzeak agerian uzten du euskararekiko motibazioa ez dela berezkoa, integratzailea; instrumentala baizik. Horrek ikasle ororen hautaketan du eragina, haien aisialdian hizkuntzaz aldatzeko aukeraketa egiten baitu ikasle kopuru handienak. Behartze horrek hizkuntza eskolarekin lotzera darama umea. Izan ere, eskaintzen al dio alderdi formalaz gain, bestelako baliabiderik eskolak? Gurasoek zer egiten dute honen aurrean? Haiekin euskaraz aritzea nahikoa al da haurren euskara erabilera sustatzeko?

Gurasoak

Gurasoei dagokienez, hauen kasuan ere ama-hizkuntza gaztelania da nagusiki, nahiz eta %30ak bikain eta %46k euskara ongi dakitela uste duen, eta %63 inongo arazorik gabe komunikatzen den.

Erabilerari dagokionez, testuinguruaren arabera aldatu egiten da hau. Hala, etxean nagusiki euskara zein gaztelania erabiltzen du %57k, eta seme-alabekin erabiltzen duten hizkuntza aldiz, euskara da, %57k erabiltzen baitu hau. Baina datu hauek aldatu egiten dira egunerokotasunean erabiltzen dituzten hizkuntzen inguruan galdetzerakoan. Bertan, gaztelania nagusitzen da %41rentzat eta %43ren arabera, euskarak haien etxetik kanpo nolabaiteko presentzia du, eta %24arentzat soilik du euskarak presentzia handia izanik. Hau da, euskararen garrantziaz jabetzen diren eta hori seme-alabei transmititzen saiatu arren, (kontuan hartu D ereduan matrikulatu izanaren arrazoi nagusia euskarazko hezkuntza garrantzitsua dela baieztatu dutela gurasoen %59k), egunerokotasunean beste hizkuntza bat nagusitzeak eragina du. Baita gaztelania hutsez pentsatzeak ere, %42k aitortu duen moduan.

Hizkuntzaren balorazioa, oro har, positiboa dela esan daiteke. Baina bi ikuspegi nagusitzen dira; gustuko en duten hizkuntzaz galdetzean, gaztelania %38k gustuko dute, beste batzuek aldiz, euskara “erabilgarria” (%41), “nirea” (%33) eta “polita” (%26) gisa definitu izan dute. Hau da, euskararen garrantziaz jabetu arren, oraindik ere bigarren plano batean uzten dute. Gainera, %79 gaztelania hutsez arituko ez litzatekeen arren eta euskaraz nagusiki eroso sentitzen den arren, %21 gaztelania hutsez arituko litzateke aukera izanda, errazago zaiolako. Hori zuzenean Jauregik (2003) aipatutako erraztasunaren printzipioarekin lotuta dago, eta nahigabe ere, aurreiritziei indarra ematen

zaie. Adibidez, errazago zaizkigun horietara jotzeko joera izateak, “euskara zaila da” ideia sendotu dezake. Jarrera horrek agerian uzten du marko teorikoan aurreiritzien atalean aipatutakoa, hau da, hizkuntza, aurreiritziz josia dagoela. %57k ezetza ematen duen arren, noizbait hauek entzun edo ezagutzen dituzte; eta kontuan hartu behar da “euskara zaila da” edo “haurrek errazago ikasten dituzte hizkuntzak” bezalako ideiek hizkuntzarekiko jarrera negatiboa zuzenki mardultzen ez badute ere, ardura haien seme-alabengan uzteko, edo ahalegina alde batera uzteko joera izan dezaketela.

Horrez gain, hizkuntzak ikastea gustuko du %79k eta %31ri ingelesa ikasi edota hobetzea gustatuko litzaiokeen arren, %20ri euskara ikasi edota hobetzea gustatuko litzaioke, eta euskara ikasi zein erabiltzeko gogo handia du %78k. Baina, ezetza nagusi den arren, badira inoiz euskara ikastera zein mintzatzera behartuta izan direnak: %35k nahi izan gabe ikasi behar izan du, eta %21ak mintzatu. Baita inoiz epaituak izan direnak ere, euskara erabiltzeagatik, hau ez erabiltzeagatik edo haien euskara mailagatik. Hala, %79k ezezkoa eman arren, %14k euskara ez erabiltzeagatik arraro begiratu diotela aitortu du, %7k euskara erabiltzeagatik, eta %43 inoiz epaitua sentitu da bere euskara mailagatik.

Azkeneko ideia horrek zer pentsatua ematen du, gurasoek euskara ez erabiltzean eragina izan baitezake, eta era berean, haien seme-alabei horren garrantzia transmititzen saiatu. Hau da, inoiz euskara mailagatik epaitua izatearen beldurrak, seme-alabek hizkuntza ondo ikas dezaten saiakera egitera eraman ditzake gurasoak. Baina zer gertatzen da haien egunerokotasunean euskara ez den beste hizkuntza bat erabiltzen bada? Zeharka bada ere, eredu hori transmitituko zaie, haurren ispilu baitira.

Gainera, galdetegiko erantzun batek, (euskaldun, euskaldun berri eta euskaldun zahar kategoriak existitzen diren galdetzean) agerian uzten du aurrez aipatutako baieztapena, “euskaldun zaharrak gainerakoek gaineratik dagoela uste du” eta ondorioz, horrek mailaketa moduko bat sor dezake gizartean, epaitua izatearen beldurra areagotzearekin batera.

Horren harira, hizkuntzaren aldeko jarreraz eta honen alde zer egiten duten galdetzean, %57 guztiz prest dago haien seme alabek euskara erabili, hizkuntzaren munduarekin kontaktua izan eta inguruak ere hizkuntza positiboki baloratzeko. Bestalde, euskara ikasteko esfortzua egitea garrantzitsua dela ikusten dute gurasoek, nagusiki lau arrazoi ezberdinetan banatzen delarik: “gure hizkuntza delako” (%15), “lan aukerak zabaltzeko” (%23), “gal ez dadin” (%13) eta “nire seme-alabak etxeko lanekin

laguntzeko” (%15). Ondorioz, esan daiteke motibazio instrumental eta integratzailea ia pareko daudela. Baina euskara indartzeko prest egote hutsak erabilera bermatzen al du?

Euskaldun zein euskal gizarteari buruzko iritziaren inguruan galdetzean, %78k biak kontsideratzen dituzte euskaldunak, euskaldun zahar eta euskaldun berriak, baina aurreko lerroetan aipatutako baieztapena ahaztu gabe: “euskaldun zaharrak besteen gainetik daudela uste du”. Horrekin batera, euskalki eta euskara batuari buruz hainbat baieztapen eman dituzte; lehenak, euskara batua aberasten duela, eta bigarrena, aldiz, beharrezkoa dela. Ondorioz, biak dira garrantzitsuak: batua “estetikari” begira eta euskalkia testuinguruaren araberakoa delako eta zenbait erregistrok eskakizun ezberdinak dituztelako.

Amaitzeko, administrazioan euskarak duen lekuaz, euskal hiztunen eskubideak errespetatzeko funtzionarioak elebidunak izan beharko liratekeela uste da nagusiki. Horrek, dena dela, ez du guztiz bat egiten errealitatearekin: oraindik ere badira euskaraz jakin ez eta administrazio publikoan lan egiten dutenak. Gainera, euskara ez galtzearen, neurriak hartu beharko liratekeela uste da. Horrek erlazio zuzena du euskararen erabilerak ideologiarekin lotura duela uste izatearekin (%30) edota ideologia, nazionalismo eta politikarekin (%30), hau da, hainbat pertsonarentzat euskara erabiltzea soilik ideologiari estuki lotuta doakio; beste batzuentzat aldiz, ideologia, nazionalismo eta politikari.

Tutorea

Tutoreari buruzko datuen arabera, honek, jatorriz, ama-hizkuntza euskara du “eroso eta gustura” sentitzearekin batera, “niregoa den hizkuntza moduan” sentitzen du eta ondorioz, haren ezagutza maila bikaina du. Jarrerari dagokionez, hau positiboki baloratu eta honen garrantzia nabarmendu daiteke, euskara hezkuntza sisteman integratzeko beharrezkoa dela azpimarratzen baitu. Ingelesa eta gaztelania maila berean kokatzen ditu, hirurak garrantzitsuak izanik. Baina jakin badakigu baieztatze hutsak ez duela hori bermatzen, nahiak ez baitu egitea ziurtatzen.

Hala, euskal gizarteari buruzko iritziaren inguruan galdetzean, funtzionarioak diren langileek euskara jakin beharko luketela baieztatzen du, hizkuntza ez galtzeko neurriak hartzearekin batera (orokorrean aipatzen den arren, kasu honetan eskola izango litzatekeena). Baina, ikasgelan hartzen al da neurririk? Hau da, neurriak kanpotik hartzea

espero bada, eta eskola barruan ez bada eragiten, nekez lortuko da zerbait. Hortaz, ez al litzateke errazago, aldaketa txikiak badira ere, gelatik hastea?

Ikasgelako egoerari dagokionez, bertan hiru ama-hizkuntza nagusitzen dira: arabiera, euskara eta gaztelania, nahiz eta ikasleen artean nagusiki gaztelaniaz aritzen direla, ikasgelatik kanpo batez ere, azpimarratzen duen irakasleak. Hau da, aldez aurretik aipatutako eremuaren araberako aukeraketa dugu ikusgai; euskara ikasgela zein formaltasunarekin lotuta, eta gaztelania eremu informalerako. Horrekin batera, ikasleen jarrera hizkuntzarekiko anitza dela aipatzen du, jatorriak orokorrean ez duela zerikusi handirik, denetarik dagoelako. Horrek hizkuntzarekiko motibazioan eragina du; hau da, batzuen motibazioak identitatearekin lotura duen arren, orokorrean instrumentala da, kanpo presioak eragina baita. Beraz, gurasoek zein jarrera duten, horrek ikasleengan eragin zuzena izango du. Atzerritarrak izan, baina euskararekiko prestutasuna agertzeak haien seme-alabak euskara ikastera bultza dezake, eta bertakoak izan baina hizkuntza ez baloratzeak euskararekiko mespretxua eragin.

Bestalde, gurasoek galdetzean, hauek ere iritzi anitzak dituztela aipatzen du. Aurrez aipatu bezala, jatorriak ez duela hainbeste markatzen dio tutoreak, bertako gaztelaniadunek zein euskaldunek izan baitezakete atzerritarrek baino jarrera okerragoa. Gainera, guraso bileretan hizkuntza menderatzearen garrantziaz aritzen den arren, familia autoktono eta atzerritarrek ez diotela behar beste garrantzi ematen esaten du. Berdina gertatzen da ume autoktonoek euskararekiko duten jarrera aztertzean. Tutorearen aburuz ume autoktonoek ez dute erabiltzen. Ordea, ez da berdin gertatzen atzerritarren seme alabekin; hauek, oro har, hizkuntza ikasi nahi dutelako, beti ere tutorearen iritzi.

Hortaz, irakasleak hizkuntza behar bezala menderatzearen garrantziaz aritzen dela dio. Euskal hezkuntza sistemaren funtsa baita hizkuntza dela kontuan hartuta, jarrera hori ulergarria da. Baina, horretaz aritzea nahikoa al da benetan hori berma dadin? Eskolak eskaintzen al ditu hizkuntza behar bezala ikasteko baliabideak? Hau da, eskola saiatzen al da etxetik ekartzen ez den hori sustatzen? Zein rol du irakasleak euskararen sustapenean?

6. ONDORIOAK

Ikasle bakoitzaren testuinguruak baditu komunean zenbait alderdi: ikasgela, gurasoak, tutorea eta herria. Hala, egunerokotasunean aritzeko hizkuntza hautaketa egin behar dute, eta aurrez aipatutako faktore edo testuinguruek badute zeresanik bertan.

Ikasleen euskararen erabilera, oro har, nahiko eskasa da. Hau da, eskolan, ikasgela barruan, ikasle eta irakasleekin (azkeneko horrekin batez ere) euskaraz aritzen dira, eta bertatik irtetzean aldiz, gaztelaniara jotzen dute. Haien egunerokotasun zein eskolaz kanpoko ekintzetan ez dute euskara aprobetxatzen. Halaxe islatzen da haien hizkuntza aukeraketetan ere. Beraz, hizkuntza, nolabait, eskolarekin lotzen dutela esan liteke.

Eskolak izan dezake zerikusirik horretan; ikasgelan bertan hizkuntza ezberdinak egonik, baina hezkuntza-sisteman euskara nagusi denean, hori nola ikasi eta sustatu, hor dago klabea. Izan ere, inguruak eskaintzen al dizkie baliabide nahikoak ikasleei? Pentsatu al dugu inoiz hizkuntza aukeraketak benetan atzean duen guztia? Ikasgelan eta irakasleekin euskaraz aritu eta bertatik ateratzean hizkuntzaz aldatze horrek agerian uzten du eskolaren zein inguruaren hutsune nagusietako bat: haur gehienek euskararen alderdi formala besterik ez dute ezagutzen. Horregatik, gaztelania gustukoago izatea, euskalkien berri ez izatea, eta marrazki bizidunen hizkuntza aukeraketa ongi uler daiteke.

Horrekin batera, eskolan bertan irakasleek euskararekiko zein jarrera duten eta nola sustatzen duten klabea da, tutorearen kasuan batez ere. Tutoreak dio ikasleen hizkuntzarekiko motibazioa, oro har, instrumentala dela, eta kurtso hasieran hau menderatzearen garrantziaz hitz egiten duela gurasoekin. Baina, zer esaten die ikasleei? Benetan hau ikasi eta erabiltzera bultzatzen ditu, edo behartu egiten ditu? Hori nola egiten den arabera, ikasgelan nagusi den motibazio instrumentala baino, motibazio integratzailea sustatzeko gakoa litzateke.

Tutorearen aburuz, ikasleek nagusiki gaztelania erabiltzen dute, jatorria alde batera utzita. Gurasoek aldiz, ez dute iritzi berdina, haien seme-alabekiko esfortzua egiten dutelakoan daude; haiekin hizkuntza erabili, haien aisialdia euskaraz izan dadin saiatu, etab. Baina argi dago hori ez dela nahikoa, haurrak oraindik ere hizkuntza erabiltzera inoiz behartuta sentitu badira.

Gurasoak haien seme-alabek euskaraz ikasteak duen garrantziaz jabetzen dira, eta baita honen inguruko esfortzua egin ere, baina, haien egunerokotasunean gaztelania

nagusi da. Etxean, seme-alabekin nagusiki euskaraz aritu arren, eremu horretatik kanpo gaztelania nagusitzen da. Hori jakinda, gurasoek haien seme-alabak hizkuntza erabiltzera bultzatzeko nolabait; baina egiten al dute haiek ere esfortzu bera? Zer nolako irudia ematen diete gurasoek haien seme-alabei, haiekin euskaraz hitz egin, baina gurasoek lagun eta ingurukoekin gaztelaniaz aritzen badira?

Argi dago, gurasoek erraztasunaren printzipioari (Jauregi, 2003) eusten diotela, hau da, errazago egiten zaien edo inguruan nagusitzen den horretara moldatzen direla, baina, ondoren, “errua haur eta gazteek dute, euskaraz aritzen ez direlako, gaztelaniara jotzen dutelako”. Erraztasunaren printzipioak ez ezik, beste zenbait alderdik eragin dezakete bertan, hala nola, epaitua izateko beldurrak, edo “euskara zaila da”, “haurrek errazago ikasten dituzte hizkuntzak” bezalako aurreiritziek. Haurrak txikiak direnean hizkera sinplea erabiltzeak murriztu dezake nolabait epaitua izateko beldurra eta ondoren, eskolak indartu dezala. Baina eskolak ezin du guztiz estali etxean ageri diren hutsuneak; ez, behintzat, kasu guztietan. Horregatik, ikasleek familia eta lagun giroan duten euskararen presentzia txikia. Etxeko hizkuntza ohiturek egunerokotasunean eragiten baitute.

Bestalde, gurasoek euskara ez dute beharrezko jotzen integratzeko, bai ordea, tutoreak, baina honek, hezkuntza sistemari begira egiten dio erreferentzia, hau da, euskara beharrezkoa dela hezkuntza sisteman integratzeko. Hortaz, zinez, zertarako uste dute balio duela euskarak?

Bai ikasle eta bai gurasoek erabilgarritasunari begira baloratzen dute positibo nagusiki, hau da, motibazio instrumental gisa, etorkizunerako lana bilatzeko, esaterako. Baina, aurrez aipatu bezala, euskara, oraindik ere soilik eskolarekin lotzen da, ondoren lan eskaintzak zabaltzeko aukerak anizteko, eta hizkuntza “polit” edo “eroso” gisa baloratu arren, beste hainbati “gehiago erabiltzea” gustatuko litzaioke. Ez da balorazio positiboaz haratago joaten, eskolako gauzak, eskolan geratu beharko balira bezala.

Hortaz, zerbait ez gabilta ondo egiten. Gure dugun hizkuntza gehiago erabiltzea gustatuko litzaiekeen pertsonak baditugu inguruan, edota hau erabiltzea “zail” suertatzen bazaie. Eskola, gutxienez, hizkuntza ikasi eta erabiltzeko espazioa behar luke izan (hortik kanpo egiterik aukera ez bada).

Etorkizunari begira, haurrek euren burua euskara erabiltzen ikusten dute, egun, nagusiki gaztelania erabili arren. Baina, nola liteke, egun, apenas erabiltzen duten

hizkuntza bat etorkizunean nagusi izatea? Orain erabiltzen ez badute, hemendik urte batzuetara aldatuko al dute hizkuntza erabilera? Jauregiren (2003) hitzetan, euskararen erabilerak ez du aldaketarik somatuko, ez bada talde edo giro informaletan esperientziarik bermatzen.

Azterketa honek aukera eman digu lanaren hasieran planteatutako helburuetako bat betetzeko; alegia, euskararekiko jarrera zein den ikusteko, eta bertan zerk eragiten duen aztertzeko. Gurasoen aldetik, oso argi ikusi izan dugu zein jarrera nagusitzen den, eta zerk eta nola eragiten duen haien seme-alabengan. Haurrek hizkuntza erabiltzeko esfortzua egiten saiatzen diren arren, ez dute hori lortzen arrazoi ezberdinek eraginda; egunerokotasunean beste hizkuntza bat erabiltzea, kasu. Ez ordea, tutorearengan; nahiko jarrera ezkorra agertzen baitu, egoeraren aurrean gurasoek axolagabekeriaz jokatzeko dutela baieztatuz. Hala, ondoriozta daiteke, balorazio eta erabileraren artean, hutsune handi bat ageri dela; euskara-eskola loturarekin zerikusia izan dezakeena. Horren aurrean zer egin? Zentzu batean, eskolak har dezake esku, erabilera handitzeko aukerak eskainiz eta ikasleen motibazioak kontuan hartuta, horietatik abiatu. Euskara ikastera behartuz baino, gozatuz, disfrutatuz eta inguru zein erabilera anitzak zabalduz.

Hutsune hori betetzeko asmotan, euskararen erabilera informala berri izan eta hori sustatzeko baliabide didaktiko bat proposatuko da jarraian, modu ludikoan eta ikasleek duten euskara-eskola eta euskara-formaltasuna harreman hori apurtzeko.

7. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

Egun, etengabe aldakorra den gizartean, ehundaka errealitate ezberdin ditugu. Hala, euskal gizartean ehundaka hizkuntza daude, euskararekin batera etengabeko hartu-emanen dabilzanak. Hortaz, ikasle batzuek euskara txikitatik zein etxetik jaso dezaketen arren, beste askoren errealitatea bestelakoa da. Lanean zehar aipatu den bezala, euskara-eskola harremanean oinarritzen da maiz egungo haurren eskolatzeko-prozesua. Hizkuntza soilik eskolan jaso eta honen alderdi formala jasotzearen ondorioz, horrek hizkuntza aldatzera darama haurra eskolaz kanpo.

Euskararen normalizazio-prozesuari begira, hizkuntzaren alderdi informalak hutsune handi bat duela esan liteke. Euskara etxetik jaso duenak soilik izan baitezake honen berri, ez hain erraz ordea, euskara eskolan zein beste alderdiren batetik jaso

duenak. Izan ere, lagunartean aritzeko, ondo pasatzeko, gozatzeko, bat-batekotasunean aritzeko, etab. baliabideak eskainiko balizkio euskarak umeari, ez al litzateke kalean hau sarriago entzungo?

Jarraian aurkeztuko den proposamenaren bidez, haurrei euskaraz modu informalagoan aritzeko baliabideak eskaini nahi zaizkie. Horretarako, euskalkiak eta jolasak uztartzea izango da gure proposamena. Suberbiola-k (2004) esan bezala, euskaraz aritzera behartzeak ez die gazteei hizkuntza erabiltzeko arrazoirik ematen. Planteamendu honen bidez, jakin badakigu ez zaiola arazoari konponbide osoa ematen, baina egoera gutxinaka aldatzen joateko bide izan daiteke; komunitatea egoeraz ohartarazi eta norberak bere neurri edo erabaki propioak har ditzan.

Modu honetan, jarduera berri bat planteatzean, ohi baino gehiago pentsatu behar izaten da hizkuntza kontuak direla eta (Suberbiola, 2004). Era berean, hizkuntza hautua ikasiz eta barneratuz joaten da, arazorik sortarazten ez duen eta inkontzienteki egiten den arte. Horixe bilatzen da gure proposamenaren bidez ere; alegia, hasieran ohi baino lan gehiago eskatzen duen esfortzua egitea, ondoren egunerokotasunean aplikatzeko ahalmena izateko eta baliabide anitzak eskuragarri edukitzeko.

Jardueraz jositako planteamendu zehatza proposatu beharrean, jarraian azaltzen dena gehiago da hurbilpen bat egoera, baliabide zein errealitatearen arabera moldatu ahalko dena. Horretarako, oso garrantzitsua litzateke familien parte-hartzea, aiton-amonena bereziki (euskaldunak diren aiton-amonak hautatuko genituzke proposamen didaktiko hau aurrera eramateko). Izan ere, eskola eremuko ikasle-irakasle harremanera mugatu beharrean, ikasleek errealitate berria ezagutu dezaten da gure helburua, ikas komunitate zabala bilatuz. Eskola eremuan ere modu informal batean aritu daiteke, eta euskaraz!

Proposamen honen funtsa da ikasleek euskalkiekin lehen kontaktua izatea, ikasle gehienek (zehazki, %53ak) horiek ezagutzen ez dituztela adierazi baitute inkestan. Horrela, irakasle eta familien elkarlanaren bitartez, astean behin pare bat orduz (egoeraren arabera moldatu daiteke), jolas eta denbora-pasetan arituz, ikasle eta kolaboratzaileei protagonismoa ematea da helburua, egoera horretatik hizkuntza-ohiturak eta jarrerak aldatzen saiatzeko.

Hasiera batean, ikasleek bertako (kasu honetan, Eibarko) dialektoa entzungo dute. Dena dela, hizkerarekin ohitzeko lehen urratsa baino ez da izango. Izan ere, gure helburua

da ikasleak poliki-poliki euskalkia erabiltzen hasteko baliabide eta gaitasunak eskuratuz joatea, euskara-eskola-formaltasuna trinomioarekin apurtuz. Horretarako, esanguratsua izan daiteke aiton-amonengandik jasotako zenbait etapide informalen zerrenda egitea, eta horiei erabilera berritua egokitzea, hala behar izanez gero.

Aurrekoarekin batera, behin ikasleak euskalkiarekin familiarizatuta daudelarik, eskolak “euskalkiaren jaia” ospatu dezake, eskola komunitate osoa martxan jartzeko asmotan. Bertan, hizkera informala praktikatzeko aukera izango lukete ikasle, irakasle zein familiek, ohikoak izan ohi diren jolasetan Eibarko hizkerako lexikoa gehituz, bertsoak zein kantak asmatuz eta moldatuz, edota Euskal Herriko toki ezberdinetako pertsonak gonbidatuz, euskalkiekiko ezagutza eta hartu-emana handitzeko.

Azken gogoeta modura erantsi nahiko genuke proposamen didaktiko honek ez duela berehalako aldaketarik ekarriko gure ikasleengan. Abiapuntu moduan baino ez da hartu behar, eta betiere hori martxan jarri, moldatu eta aurrera jarraitzearen erantzukizuna hori egiten duenaren esku egongo da.

8. BIBLIOGRAFIA

Amorrortu, E., Goirigolzarri, J., Ortega, A., Urla, J. (2016). *Nuevos hablantes de euskera: experiencias, actitudes e identidades*. Bilbao: Deustoko Unibertsitatea.

Amorrortu, E., Barreña, A., Idiazabal, I., Ortega, A. (2009). *Actitudes y prejuicios de los castellano hablantes hacia el euskera*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza.

Amorrortu, E., Ortega, A. (2010). Euskararen balioak eta gazteen erabilera: Heldu erdaldunen pertzepzioak. *Soziolinguistika bat*, 77 (4), 117-134 or.

Anaut, D. (2010). Argiak eta itzalak euskararen lurraldean euskararen etxean, gazi-gozo. *Soziolinguistika bat*, 74 (1), 17-29 or.

Azurmendi, MJ., Luque, J. (2006). D-eredu goiztiarra ikasbide orekatua. *Soziolinguistika bat*, 60. Honako webgune honetatik berreskuratua:

<http://www.soziolinguistika.eus/es/node/3211>

Echarri, FJ. (2011). El euskera: identidad cultural del pueblo vasco. *Euskonews*, 605. Honako webgune honetatik berreskuratua:

<http://www.euskonews.eus/0605zkb/kosmo60501es.html>

Igartzabal, I. (2015). Jarreretatik portaerak ulertu nahian. *Soziolinguistika bat*, 97 (4), 121-138 or.

Jauregi, P. (2003). Euskara eta gazteak Lasarte-Orian II. III. Atala: Gertatzen ari denari eta gerta daitekeenari buruzko hausnarketa. *Soziolinguistika bat*, 47, 102-110 or.

Navarro, D. (2017). Los beneficios de aprender un idioma. *Heraldo*. Honako webgune honetatik berreskuratua:

<https://www.heraldo.es/noticias/aragon/2013/09/04/los-beneficios-aprender-idioma-247988-300.html>

Suberbiola, P. (2004). Euskararen erabileran nondik eragin? Zenbait gogoeta. *Soziolinguistika bat*, 53. Honako webgune honetatik berreskuratua:

<http://www.soziolinguistika.eus/node/1778>

9. ERANSKINAK

1. Eranskina

Ikasleei pasatako galdetegia

Hizkuntza-gaitasuna

1-Zein da zure ama-hizkuntza? (txikitatik etxean gurasoengandik jaso duzuna)

- Euskara
- Gaztelania
- Euskara eta gaztelania
- Ingelesa
- Arabiera
- Beste bat (esan zein):

2-Zenbat urterekin hasi zinen euskara ikasten?

3- Hizkuntzen ezagutza-maila: (bikain – ongi – hala nola – oso gutxi)

Euskara	
Gaztelania	
Ingelesa	
Frantsesa	
Arabiera	
Beste bat (zehaztu)	

Hizkuntza-erabilera

4-Zure amarekin eta aitarekin zein hizkuntza erabiltzen dituzu?

- Euskara
- Gaztelania
- Euskara eta gaztelania
- Ingelesa

- Arabiera
- Beste bat

5-Normalean, zein hizkuntza erabiltzen duzu eskolan?

*Ikaskideekin gela barruan:

*Ikaskideekin atsedenaldirian:

*Irakasleekin gela barruan

*Irakasleekin gelatik kanpo:

6-Zein hizkuntza erabiltzen duzu gehien eskolatik kanpo? (Multikirolean, aisialdirian...)

- Euskara
- Gaztelania
- Euskara eta gaztelania
- Ingelesa
- Arabiera
- Beste bat (zehaztu):

7-Zure ustez, zein hizkuntzatan pentsatzen duzu?

- Euskaraz
- Gaztelaniaz
- Euskaraz eta gaztelaniaz
- Ingelesez
- Arabieraz
- Beste bat (zehaztu):

8-Garrantzia ematen al zaio zure ama-hizkuntzari gelan, kontuan hartzen al da?

- Bai, guztiz
- Pixka bat
- Ezer ez

9-Nire familia eta lagun giroan, euskarak presentzia...

1	2	3	4	5
Ez du presentziarik	Oso presentzia txikia du	Nolabaiteko presentzia du	Presentzia du	Presentzia handia du

10-Ikusten al duzu zure burua hemendik 10 urtetara euskara erabiltzen?

- Bai, asko gainera
- Ez, ez dit ezertarako balioko
- Ez dakit, baliteke

Hizkuntza-jarrera

11-Hizkuntzak ikatea gustuko al duzu?

- Bai
- Ez
- Pixka bat
- Ez du ezertarako balio

12-Beste hizkuntzaren bat ikatea gustatuko litzaizuke? (Erantzuna baiezkoa bada, zein?)

13-Noizbait sentitu al zara euskara ikastera behartuta?

Eta euskaraz mintzatzera?

14-Aukera izango bazenu, gaztelania hutsez ikastea nahiago zenuke? Zergatik?

15-Zein hizkuntza duzu gustukoen, hitz egiten dituzunen artean? Zergatik?

16-Euskara gustatzen al zaizu?

*Bai: Polita da Erabilgarria da Euskaldunon hizkuntza da, "nirea"

*Ez: Zaila da Ez du ezertarako balio Berdin zait

17-Nola sentitzen zara euskaraz hitz egiten duzunean?

- Eroso eta gustura sentitzen naiz euskaraz egiten dudanean.
- Ezertarako balio ez duen hizkuntza bat da. Euskara ikastea alferrikakoa da.
- Aukera izanda, nahiago dut beti gaztelaniaz egin, errazagoa zaidalako.
- Euskara gehiago erabiltzea gustatuko litzaidake.
- Euskara oso polita iruditzen zait, baina zaila egiten zait erabiltzea.
- Euskara "nireago" den hizkuntza moduan sentitzen dut.
- Beste herrietako euskaldunekin elkartzean, lotsa izaten dut euskaraz hitz egiteko.
- Beste bat: _____

18-Zein esaldirekin zaude ados?

- Euskara ingelesa eta gaztelania baino garrantzitsuagoa da.
- Euskara, ingelesa eta gaztelania, hirurak garrantzitsuak dira.
- Ingelesa eta gaztelania euskara baino garrantzitsuagoak dira.

**19-Etorkizunean euskaraz jakitea baliagarria izango zaizula uste al duzu?
Zertarako?**

20-Bete ondorengo taula:

	OSO HANDIA	Hala nolakoa	TXIKIA	EZER EZ
Euskara ikasteko daukadan gogoia...				
Euskara erabiltzeko daukadan gogoia...				

21-Telebista zein hizkuntzatan ikusten duzu?

- Euskaraz, batez ere
- Gaztelaniaz, batez ere
- Euskaraz eta gaztelaniaz
- Beste bat (zehaztu):

22-Zein hizkuntzatan ikusten dituzu gustukoen dituzun marrazki bizidun edo telesailak?

- Euskaraz
- Gaztelaniaz, euskaraz ez daudelako
- Gaztelaniaz, nahiz eta euskaraz ere badauden
- Beste bat (zehaztu):

23-Zein hizkuntzatan entzuten duzu musika?

- Euskaraz
- Gaztelaniaz
- Euskaraz eta gaztelaniaz
- Ingelesez
- Denetarik, ez zait hizkuntza axola
- Beste bat (zehaztu):

Euskalkiak

24-Euskalkiak, euskarak dituen aldaerak dira; tokiaren arabera, zenbait hitz, modu ezberdinetan esan daitezke. Adibidez, euritakoa beharrian, “guardasola” esatea.

Ezagutzen al duzu euskalkirik?

- Bai (Zein?):
- Ez

25-Euskalkia eskolan entzuten al duzu?

- Bai: Nori?
- Ez
- Ez dakit

26-Zerekin erlazionatzen duzu euskalkia? (Bat baino gehiago aukeratu dezakezu)

- Aita eta amarekin
- Aiton-amonekin
- Lagunekin
- Eskolarekin
- Zaharra den zerbaitekin
- Urruti dagoen zerbaitekin
- Ez dakit

27-Nola deskribatuko zenuke euskalkia?

- Polita da
- Zatarra da
- Erraza da
- Zaila da
- Euskara batua baino gehiago gustatzen zait
- Euskara batua nahiago dut
- Ez dakit

28-Nire ustez...

- Euskalkia eskolan erabili behar da
- Bakoitzak nahi duen euskara erabili behar du
- Eskolan bakarrik euskara batua erabili behar da
- Ez dakit

Gurasoei pasatako galdetegia euskaraz

Hizkuntza gaitasuna

1-Zein da zure ama hizkuntza?

2-Hizkuntzen ezagutza-maila: (bikain – ongi – hala nola – oso gutxi)

Euskara	
Gaztelania	
Ingelesa	
Frantsesa	
Arabiera	
Beste bat (zehaztu)	

3-Euskara jakitekotan, zein mailatan kokatzen duzu zure burua?

- Euskaraz inongo arazorik gabe komunikatzen naiz
- Euskaraz mintzatzeko zailtasun handiagoak ditut idazteko baino
- Euskaraz idatzi dezaket, baina zailtasunez mintza naiteke
- Ulertu dezaket baina zailtasunak ditut hitz egin eta idazteko

Hizkuntza erabilera

4-Zure etxean zein hizkuntza erabiltzen dira?

5-Zein da egunerokotasunean gehien erabiltzen duzun hizkuntza?

6-Zein da zure seme-alabekin nagusiki erabiltzen duzun hizkuntza?

7-Zein da, zure seme-alabak D ereduan matrikulatzearen arrazoia?

- Eskolaren kokapena.
- Etorkizuneko aukerak zabaltzea haurrari.
- Kultura-aniztasun handiko eskola izatea.
- Euskarazko heziketa ematea garrantzitsua da
- Bestelakoak:.....

8-Zure ustez, zein hizkuntzatan pentsatzen duzu?

9-Nire etxez kanpoko giroak euskarak presentzia...

1	2	3	4	5
Ez du presentziarik	Oso presentzia txikia du	Nolabaiteko presentzia du	Presentzia du	Presentzia handia du

Hizkuntza-jarrera

10-Hizkuntzak ikastea gustuko duzu?

11-Hizkuntzaren bat ikastea gustatuko litzaizuke? (Erantzuna baiezkoa bada, zein?)

12-Noizbait sentitu al zara euskara ikastera behartuta? Eta euskaraz mintzatzera?

13-Noizbait sentitu zara euskara erabiltzeagatik (edo ez erabiltzeagatik) epaitua? (Baiezko kasuan zehaztu).

- Arraro begiratu naute euskara erabiltzeagatik
- Arraro begiratu naute euskara EZ erabiltzeagatik
- Modu txarrean hizkuntzaz aldatzeko eskatu didate
- Beste bat (zehaztu):

14-Noizbait sentitu zara zure euskara mailagatik epaitua?

15-Aukera izango bazenu, gaztelania hutsez bizitzea nahiago zenuke? Zergatik?

16-Zein hizkuntza duzu gustuko? Zergatik?

17-Euskara gustatzen al zaizu?

*Bai: a) Politza da b) Erabilgarria da c) Euskaldunon hizkuntza da, "nirea"

*Ez: a) Zaila da b) Ez du ezertarako balio c) Berdin zait

18-Zein da euskarari buruz daukazu iritzia?

- Eroso eta gustura sentitzen naiz euskaraz egiten dudanean.
- Ezertarako balio ez duen hizkuntza bat da. Euskara ikastea alferrikakoa da.
- Aukera izanda, nahiago dut beti gaztelaniaz egin, errazagoa zaidalako.
- Euskara gehiago erabiltzea gustatuko litzaidake.
- Euskara oso politza iruditzen zait, baina zaila egiten zait erabiltzea.
- Euskara "nireagoa" den hizkuntza moduan sentitzen dut.

Euskara gizartean

19-Zein esaldirekin zaude ados?

*Euskara, ingelesa eta gaztelania baino garrantzitsuagoa da

*Euskara, ingelesa eta gaztelania, 3rak garrantzitsuak dira

*Ingelesa eta gaztelania, euskara baino garrantzitsuagoak dira

20-Bete ondorengo taula:

	OSO HANDIA	ERDIPURDI	TXIKIA	OSO TXIKIA
Euskara ikasteko daukadan gogoia...				
Euskara erabiltzeko daukadan gogoia...				

21-Ondorengo baieztapenetatik bat zatozenarekin aukeratu:

*Euskara jakin ez arren, kultura horren parte sentitzen naiz

*Euskal mundua ezagutu ez arren, honen inguruko interesa dut

*Euskal kultura ez dut ezagutzen eta ez dut interesik

*Ez dut uste euskal kulturarik dagoenik

22-Euskararen erabilera sustatzeko...

1	2	3	4	5
Ez nago batere prest	Prest egon ninteke	Prest nago	Gutziz prest nago	Ez dakit

*-Euskara ondo ikasteko edo erabiltzeko esfortzua egingo dut

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

*Nire seme-alabek euskara erabil dezaten ardura hartuko dut

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

*Aukera ezberdinetara joko dut nire seme alabek euskararen munduarekin kontaktua izan dezaten (udalekuak, aisialdia, eskolaz kanpoko ekintzak...)

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

*Nire inguruak euskara elementu positibo gisa ikus dezan nire esku dagoena egingo dut

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

23-Ondorengo bi esaldietatik zeinek laburtzen du hobekien zure iritzia? Borobildu ezazu

*Nire ustez, euskara, euskaldunon hizkuntzetako bat da, ez euskaldunon hizkuntza nagusia

*Nire ustez, euskara, euskaldunon hizkuntza nagusia da.

24-Borobildu ados zauden baieztapenekin (Bat baino gehiago izan daitezke).

Zergatik da garrantzitsua euskaraz ikasteko esfortzua egitea?

*Gure hizkuntza delako

*Gal ez dadin laguntzeko

*Euskal hiztunak errespetatzeko

*Nire seme-alabak etxeko lanekin laguntzeko

*Euskal hiztunekin komunikatu ahal izateko

*Nire inguruko batzuek hitz egiten dutelako

*Lan eskaintza zabaltzeko

*Nire hazkuntza pertsonalerako

*Euskal inguru kulturalera gerturatzeko

*Ez da garrantzitsua

*Beste bat (zehaztu):

25-Administrazioan euskararen aldeko egiten ari diren ekintzetatik, adierazi, zein neurritan zauden ados ondorengo baieztapenekin.

1	2	3	4	5	6
Ez nago batere ados	Ez nago ados	Ez ados ez desados	Ados nago	Oso ados	Ez dakit

*Ezinbestekoa da publikoari begira dauden langileek euskara hitz egitea

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

*Euskararen politika linguistikoak euskara indarrez sartzen du

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

*Euskal hiztunen eskubideak errespeta daitezzen funtzionarioak elebidunak izan beharko lirateke

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

*Arriskuan dagoen hizkuntza bat salbatzeko, Euskara adibidez, egoera hobetzeko neurriak hartu beharko lirateke, nahiz eta batzuek honen alde ez egin.

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

Euskaldun zahar vs Euskaldun berri

26-Biak kontsideratzen al dituzu "benetako euskaldunak"?

- Bai
- Ez, euskaldun zaharra soilik
- Ez, euskaldun berria soilik

27-Borobildu ados zatozen baieztapenekin.

EUSKALKIA(K)...

- Euskara aberasten du
- "Benetako euskara da"
- Beharrezkoa da
- Hau erabiltzen dakiena soilik da euskal hiztun ona
- Ez da beharrezkoa
- Euskara batua bigarren mailan uzten du
- Eragin negatiboa du euskara batuarengan
- Maila akademikoan landu beharko litzateke

EUSKARA BATUA...

- "Benetako euskara da"

- Artifizial eta hotza da
- Soilik akademikora mugatu beharko litzateke
- Guztiok erabili beharko genuke
- Beharrezkoa da
- Ez da beharrezkoa
- Hau erabiltzen duena, ez da benetako hiztuna

28-Euskaldunen artean kategoriak (euskaldun zahar, euskaldun berri eta euskaldunen artean) ezberdintzen direla uste al duzu?

- Bai, euskaldun zaharra euskaldun berri eta euskaldunen gainetik dago
- Bai, euskaldun berria, euskaldun zahar eta euskaldunen gainetik dago
- Bai, euskalduna euskaldun zaharra eta berriaren gainetik dago
- Ez, guztiak daude maila berean

Aurreiritziak

29-Euskara erabiltzea ideologiari, politika eta/edo nazionalismoari lotuta dagoela uste duzu?

- a) Bai, soilik politikari
- b) Bai, soilik ideologiari
- d) Soilik nazionalismoari
- e) Guztiei
- f) Ez
- g) Beste bat (Zehaztu):

30-Euskara aurreiritziz josita dagoela uste duzu? (Baiezko kasuan, zehaztu, zein ezagutzen duzun)

- a) Bai. Zehaztu:
- b) Ez

31-Zein aurreiritzi entzun/ezagutzen dituzu?

- Euskara zaila da
- Hurrek errazago ikasten dute hizkuntza

- Euskara hitz egiteko hizkuntza ondo ezagutu beharra dago
- Guztiak entzun ditut

Gurasoei pasatako galdetegia gaztelaniaz

Competencia lingüística

1-¿Cuál es tu lengua materna?

2- Conocimiento en las siguientes lenguas (Excelente-Bueno-Regular-Malo)

Euskera	
Castellano	
Inglés	
Francés	
Árabe	
Otro/s (especificar)	

3- En caso de conocer el euskera, ¿cuál es tu nivel?

- Me comunico sin ningún problema en euskera
- Tengo más dificultades para hablar que para escribir en euskera
- Soy capaz de escribir en euskera, pero tengo dificultades para hablarlo
- Puedo entender, pero tengo dificultades para hablar y escribir en euskera

Uso de la lengua

4-¿Qué lenguas se usan es vuestra casa?

5-¿Cuál es el idioma que usas mayormente en tu día a día?

6-¿Cuál es el idioma que usas con tu hija/os?

7-¿Cuál es la razón de haber matriculado a tus hija/os en Modelo D?

- Ubicación de la escuela.
- Ampliar posibilidades de futuro a mi hijo/a.
- Es una escuela de amplia variedad cultural.
- La importancia de la educación en euskara.
- Otros:.....

8-¿En tu opinión, en qué idioma piensas?

9-En el ambiente en que me muevo, la presencia del euskera...

1	2	3	4	5
No tiene presencia	Tiene muy poca presencia	Tiene alguna presencia	Tiene presencia	Tiene mucha presencia

Actitud hacia el idioma

10-¿Te gusta aprender idiomas?

11-¿Te gustaría aprender algún idioma? En caso afirmativo, ¿Cuál?

12-¿Alguna vez te has sentido obligado/a a estudiar euskera? ¿Y a hablarlo?

13-¿Alguna vez te has sentido juzgada/o por usar (o no usar) el euskera? (En caso afirmativo, especifica):

- Me han mirado raro por hablar euskera
- Me han mirado raro por NO hablar euskera

- Me han pedido, de malas maneras, que cambie de idioma
- Otro (especificar):

14-¿Alguna vez te has sentido juzgado/a por tu nivel de euskera?

15-¿Si tuvieras la posibilidad, preferirías vivir solo en castellano? ¿Por qué?

16-¿Qué idioma es tu preferido? ¿Por qué?

17-¿Te gusta el euskera?

- *Si: Es bonito Es útil Es el idioma de los vascos, “el mío”
- *No: Es difícil No sirve para nada Me da igual

18-¿Cuál es la opinión que tienes sobre el euskera?

- Me siento cómodo/a y a gusto cuando hablo en euskera.
- Es un idioma que no sirve para nada. Aprender euskera es en balde.
- Pudiendo elegir, prefiero usar el castellano, se me hace más fácil.
- Me gustaría usar más el euskera.
- El euskera me parece bonito, pero se me hace difícil utilizarlo.
- El euskera es MI idioma

19-¿Con qué frase estás de acuerdo?

- El euskera es más importante que el inglés y el castellano
- El euskera, el inglés y el castellano, los tres son igual de importantes
- El inglés y el castellano, son más importantes que el euskera

20-Rellena la siguiente tabla:

	MUCHAS	A MEDIAS	POCAS	MUY POCAS
Las ganas que tengo de aprender euskera son...				
Las ganas que tengo de usar el euskera son...				

21-Elige la frase con la que estás de acuerdo:

- Aunque no se euskera, siento que soy parte de la cultura vasca
- Aunque no conozco el mundo vasco, tengo interés
- No conozco la cultura vasca y no tengo interés
- No creo que haya cultura vasca

22-Para promover el euskera...

1	2	3	4	5
No estoy nada dispuesta/o	Podría estar dispuesta/o	Estoy dispuesta/o	Estoy muy dispuesta/o	No lo sé

*Haré el esfuerzo de aprender y usar el euskera

1	2	3	4	5

*Me encargaré de que mis hijos/as hagan uso del euskera

1	2	3	4	5

*Haré uso de diferentes opciones para que mis hijos/as tengan contacto con el mundo del euskera (campamentos, tiempo libre...)

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

*Haré lo que esté en mi mano para que mi entorno vea el euskera como elemento positivo

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

23-¿De las siguientes frases, cuál resume mejor tu opinión?

- En mi opinión el euskera es uno de los idiomas de los vascos, no el principal idioma
- En mi opinión, el euskera es el idioma principal de los vascos

24-Marca las afirmaciones con las que estás de acuerdo (Puede ser más de una)

¿Por qué es importante hacer el esfuerzo para aprender euskera?

- Porque es nuestro idioma
- Para ayudar a que no se pierda
- Para respetar a los vascohablantes
- Para ayudar a mis hijos/as con los deberes
- Para poder comunicarme con los vascohablantes
- Porque lo hablan en mi entorno
- Para tener más oportunidades laborales
- Para el crecimiento personal
- No es importante
- Otro (especificar):

25-Con las medidas que se están tomando en la administración pública, señala en qué medida estás de acuerdo con las siguientes afirmaciones:

1	2	3	4	5
No estoy nada dispuesta/o	Podría estar dispuesta/o	Estoy dispuesta/o	Estoy muy dispuesta/o	No lo sé

*De cara al público, es imprescindible que los trabajadores hablen euskera

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

*La política sobre el euskera impone el idioma con fuerza

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

*Los funcionarios deberían de ser bilingües, respetando los derechos de los vascohablantes

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

*Para salvar un idioma que está en peligro, por ejemplo, el euskera, deberían de tomarse medidas para evitarlo

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

26- *Euskaldun zahar: Vascohablante cuya lengua materna es el euskera

***Euskaldun berri: Vascohablante cuya lengua materna NO es el euskera**

¿Consideras a los dos “auténticos vascos”?

- Si
- No, solo al euskaldun zahar
- No, solo al euskaldun berri

27-Marca las afirmaciones con las que estás de acuerdo

LOS DIALECTOS (euskalki) DE LA LENGUA VASCA...

- Enriquecen el euskera
- “Son el auténtico euskera”
- Son necesarios
- Solo el que sabe usarlos es buen hablante
- No son necesarios
- Deja al euskera batua en segundo lugar
- Tiene influencia negativa en el euskera batua
- Se debería de trabajar a nivel académico

EUSKARA BATUA...

- “Es el auténtico euskera”
- Es frío y artificial
- Debería de limitarse solo a nivel académico
- Deberíamos de usarlo todos
- Es necesario
- No es necesario
- El que lo usa, no es “auténtico hablante”

28-¿Crees que hay categorías entre los vascos? ¿Crees que se hacen distinciones?

- Si, el euskaldun zahar, está por encima del euskaldun berri
- Si, el euskaldun berri, está por encima del euskaldun zahar
- No, todos están al mismo nivel

29-¿Crees que usar el euskera se asocia a la ideología, política y/o al nacionalismo?

- Sí, a la política

- Sí, a la ideología
- Sí, al nacionalismo
- A todos
- No
- Otro (Especificar):

30-¿Crees que el euskera está lleno prejuicios?

- Sí. ¿Cuáles?
- No

31-¿Qué prejuicios conoces/has escuchado?

- El euskera es difícil
- Los niños aprenden más fácil el idioma
- Hay que conocer bien el idioma para poder hablarlo
- Conozco/he escuchado todos